

POESIA GOZATU eta MUNDUA DASTATU:

HOTSAK JOLAS BILAKATZEKO

5 urteko gelarako proposamena

GRADU AMAIERAKO LANA

EGILEA: Dosuna Cobo, Sara.

ZUZENDARIA: Zelaieta Anta, Edu.

2019/2020

LABURPENA

Gradu Amaierako Lan honetan poesia Haur Hezkuntzan plazaratzeko proposamena aurkeztuko dugu, hain zuzen ere, 5 urteko gelan. Gaia jorratu duten egileei kasu eginda, poesia eta jolasa uztartuko dira diseinu didaktikoan, betiere helburu nagusia umeak gozatzea, ikastea eta haren interesak piztea izanda. Ildo horretatik, lanaren atal teorikoa euskal kulturaren oinarritzen da, ondoren, praktikara igarotzeko ezagutu beharrekoa azalduz. Alde horretatik, Euskal Literaturatik, Euskal Haur eta Gazte Literatura zeharkatuz, Haur Poesia eta jolaserako bidea egingo dugu, azkenengo bi hauek gozatzeko bide direla kontuan izanda. Era berean, Haur Hezkuntzako Curriculuma ere kontuan hartuko dugu. Jardueretan, alderdi ludikoa gailendu ez ezik, umeek poesiarekiko harremana eraiki eta gaitasunak eskuratu ditzaten, hotsak jolas bilakatuko ditugu.

Hitz gakoak: Haur Hezkuntza, Euskal Literatura, poesia, jolasa, hotsak.

RESUMEN

Este Trabajo de Fin de Grado trata la poesía mediante una propuesta dirigida a Educación Infantil, en concreto, al aula de 5 años. Considerando la opinión de los expertos en la materia, poesía y juego serán unificados en la propuesta, teniendo como principal objetivo disfrutar, aprender e incentivar los intereses de los niños y niñas. Asimismo, el apartado teórico del trabajo se centrará en la cultura vasca, explicando a continuación lo necesario para pasar a la práctica. Por consiguiente, recorreremos un trayecto desde la Literatura Vasca, atravesando la Literatura Infantil y Juvenil Vasca, hasta la Poesía Infantil y el juego, siendo estos últimos el medio de disfrute. Además, se tendrá en cuenta el Currículo de Educación Infantil. En las actividades, no solo se destacará el aspecto lúdico, sino que también se construirá una relación entre poesía y niños/as con el fin de desarrollar las habilidades pertinentes, transformando así los sonidos en juego.

Palabras clave: Educación Infantil, Literatura Vasca, poesía, juego, sonidos.

ABSTRACT

This Final Degree Project provides poetry thought out a proposal geared towards Early Childhood Education, in particular, to 5 year old classroom. Considering the experts knowledge in this area, poetry and game had been unified in this didactic proposal, having as main objective enjoy, learn and stimulate children interests. Furthermore, the project theoretical content would be focus on Basque Culture, explaining hereafter the information need to carry out a practice. Therefore, we would set up a way from Basque Literature, crossing over Basque Child and Youth Literature, to Children's Poetry and game, being these latter a way to enjoy. Moreover, we would take into consideration Early Childhood Education Curriculum. In the activities, it would be outline not only the playful way, but also the relationship built up between poetry and children so that they develop their skills, turning sounds into a game.

Keywords: Early Childhood Education, Basque Literature, poetry, game, sounds.

AURKIBIDEA

1. SARRERA	2
2. GAIAREN JUSTIFIKAZIOA	3
3. MARKO TEORIKOA	5
3.1. Euskal Literatura	5
3.2. Euskal Haur eta Gazte Literatura (HGL)	6
3.2.1. Euskal HGLren historia	6
3.2.2. HGLren ezaugarriak eta funtzioak	8
3.3. Haur Poesia	8
3.3.1. Ezaugarri nagusiak	9
3.3.2. Euskal Haur Poesia	10
3.3.3. Poesia Haur Hezkuntzan	12
3.4. Haur Poesia eta jolasa: gozatzeko bidea	13
3.5. Curriculumaren azterketa	14
4. HELBURUAK	17
5. POESIA GOZATU eta MUNDUA DASTATU	18
5.1. Sarrera.....	18
5.2. Ikuspegi kurrikularra.....	20
5.3. Jardueren programazioa	21
5.3.1. JARDUERA: Kotxea ordezkatu eta irudimenaz jolastu	22
5.3.2. JARDUERA: Hotsen dramatizazioa	23
5.3.3. JARDUERA: Hotsekin saltoka	24
5.3.4. JARDUERA: Puskatutako hotsak	25
5.3.5. JARDUERA: Etxandako hotsak	26
5.3.6. JARDUERA: Hotsen <i>pictionary</i> -a	27
5.3.7. JARDUERA: Hotsen adierazpena.....	28
5.3.8. JARDUERA: Kiku, kaikua hotsen ordua.....	29
5.3.9. JARDUERA: Hotsen puzzlea	30
5.3.10. JARDUERA: Onomatopeiekin jolasten	31
5.3.11. JARDUERA: Hotsen jolasa	32
6. BALIZKO APLIKAZIOA: azken gogoetak	33
7. GAIAREN BALORAZIO PERTSONALA	34
8. ERREFERENTZIAK	35

ERANSKINAK

1. SARRERA

Hurrengo lerroetan garatuko den dokumentua, Gasteizko Hezkuntza eta Kirol Fakultateko Gradu Amaierako Lanari (GrAL) dagokio; Haur Hezkuntzako 4. mailako ikasle bati alegia. Lan honen xedea, Haur Poesiaren presentziaren garrantzia azaleraztea eta *Poesia gozatu eta mundua dastatu: hotsak jolas bilakatzeko proposamena* erakustea da; betiere azkeneko helburu nagusia umeak gozatzea, ikastea eta haren interesak piztea izanda. Hau da, umeek modu globalizatuan ikas dezaten da asmoa. Horretarako, hainbat esperientzia esparrutako gaitasunak eta edukiak jorratu behar dira.

Hori dela eta, Haur Hezkuntzako graduan zehar, baita Irakurzaletasuna eta Liburutegiak minorreko espezialitatean ere ikasitakoa erabili izan da GrAL honetan. Are gehiago, informazio zehatzagoa eta sakonagoa eskaintzeko iturri desberdinak arakatu izan dira. Hortaz, lan hau edozein hezitzailearentzako baliagarria izan daitekeelakoan, egitura argi eta kohesionatu baten ildotik, teoria eta helburu zehatz batzuetan oinarritutako proposamena garatu da.

Lan honen egiturari erreparatuz, gaiaren justifikazioa agertzen da lehendabizi. Honi lotuta, zenbait artikulua eta liburutan oinarritutako marko teorikoa dago ondoren. Hots, Euskal Literatura bistaratu eta gero, Euskal Haur eta Gazte Literaturara bideratzeko da; haren historia, ezaugarriak eta funtzioak nabarmenduz. Are gehiago, Haur Poesian murgiltzen da honen ezaugarriak, Euskal Haur Poesia eta Haur Hezkuntzan nola landu behar den azalduz. Honen ostean, jolasa eta poesia gozatzeko modua dela argitzen duen teoria agertzen da. Era berean, curriculumaren azterketaren bidez aurkeztuko den proposamen didaktikoari babes instituzionala eta legala emango zaio.

Marko teorikoa burututa, lan akademiko honen helburuak adieraziko dira. Jarraian, proposamenaren azalpenari oratuz, hura ikuspegi kurrikularretik aztertu eta jardueren programazioa aurkeztuko da. Izan ere, jarduerak lau asteetan zehar gauzatuko diren arren, poesia umeen egunerokotasunean hazteko zertzeladak ikusiko dira. Baita etorkizunerako balizko aplikazioari

buruzko gogoeta ere. Ondoren, GrALaren balorazio pertsonala agertuko da. Bukatzeko, dokumentuan zehar erabilitako erreferentziak erakutsiko dira, APA arauen arabera betiere.

Aipatutakoaz gain, lana hiru galdera eragileen bitartez bideratua izan da: (1) Zer da poesia lantzea Haur Hezkuntzan?; (2) Zergatik da garrantzizkoa umeei poesiarekiko harremana eraikitzea?; (3) Nola aurkeztu jarduerak transmisioa esanguratsua izan dadin?.

2. GAIAREN JUSTIFIKAZIOA

Hizkuntza bat mintzatzeko modurik ederren, aratzen eta artistikoena da poesia. Hezkuntzan, poesiak ezinbesteko papera du; umeen interes eta motibazioa pizten lagundu dezake (Adricaín eta Orlando, 2016).

Era berean, poesiak mundu ikuskera anitzak eskaintzen dituen heinean, umeen irudimena estimulatu eta elikatzen du; pentsamenduaren mugak deseraikiz. Leire Bilbao idazlearen (2018, 1.or.) iritziz, “Sinetsita nago umeei literaturarekin duten lehen kontaktua poesiarekin dela. Hitzaren bitartez hurbiltzen gara haiengana, baita jaio aurretik ere. (...) Hitzarekin erakusten diegu gertutasuna, eta hitzarekin egiten dugu lehenengo jolas. Horren defentsan nago”.

Haatik, Haur Poesiak, arte orok bezala, ez du adin tarte mugaturik. Are gehiago, Añorgak (2009, 18.or.) dioenez, balio dezake “haurren begiekin (...) mundua ikusten erakusteko helduei, galdera berriak egiteko, eta gauza txikietan eta konkretuetan liluratzeko eta gozatzeko”.

Bestalde, hizkuntza eredu ludiko, afektibo, musikal eta gorputzekora hurbiltzen laguntzen gaitu poesiak. Alderdi hauek umeei garapen integrala lortzen lagundu diezaiekete. Halaber, Igerabidek (2011) baieztatzen duenez,

poesiak emozio eta sentipenen adierazpena duen ahozketasuna sustatzen du. Zenbat eta lehenago jasotzen duten umeek estimulu hauek, orduan eta erraztasun handiagoa izango dute hizkuntza garatzeko (Assunção, 2006). Bai eta belarrien irakurketarako gaitasuna ere garatzeko; irakurketa begietatik ez ezik, belarrietatik ere bideratzen da. Umeen ulermen maila desberdinei esker irakurketa hori aberatsa eta atsegina gerta dakieke (Bilbao, 2018; Etxaniz, 2020).

Poesiaren hizkuntza umeen artean hedatu ahal izateko, gaur egungo egoera ezagutu beharra dago. Eskola askotan haur folklorea ez da curriculumeko gaia izan (Ferreira, 2013). Bestalde, poesia erabiltzen den eskoletan, oro har, hura ikastera behartzen zaie umei. Haatik, haiek ez dute poesia buruz ikasi behar, baizik eta, oharkabean, hura ikasteko grina sentitzen dutenean. Poesia eta musikaren kasuan, interesgarriena entzutera ohitzea da. Denbora izango dugu aurrerago sakontzeko (Adricaín eta Orlando, 2016). Hori dela eta, poesia berreskuratu beharra dugu; hura umearen munduan nahitaezko elementua baitugu (Arnal, 2019). Hori horrela, irakasleek gai honi buruzko ezagutza orokorra izatea ezinbestekoa da umeekin praktikan erabil ditzaketen (Ferreira, 2013).

Aurrerago ikus daitekeen bezala, Haur Hezkuntzako Curriculuma aztertuko da. Honen arabera, poesia eta jolasa uztartuz umeen nortasunaren eraikuntza, hitzezko komunikazioa, gorputz hizkuntza eta arte komunikaziorako beste modu batzuk lantzen baitira (EAEko Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura saila, 2016).

3. MARKO TEORIKOA

Geroago azalduko diren gaiei oratuz, lanaren oinarritapen teorikoa azalduko dugu jarraian. Hasteko, euskal kulturaren oinarrituko gara Euskal Literatura, Euskal Haur eta Gazte Literatura eta Euskal Haur Poesia aztertu izanik. Bai eta jolasarekiko harremana ere. Azkenik, Eusko Jaurlaritzaren Curriculumak, Heziberri deritzonak (EAEko Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura saila, 2016), gure aztergaiak zer dioen ere ekarriko dugu hona.

3.1. EUSKAL LITERATURA

Lehendabizi, euskal literaturari hasiera emateko terminoaren definizio etimologikoari erreparatuko zaio. Lur hiztegi entziklopedikoaren arabera (2020), literatura da “latineko *littera* (“letra”) hitzetik sortua” eta idazlearen jarduna eta emaitza adiera du. Euskaltzaindiaren Literatur Terminoen Hiztegiak (2020), berriz, idazteko zein irakurtzeko arteari dagokiola adierazten du. Baita gramatika eta erretorikari ere. Oro har, literatura letrekin egiten den josteta den heinean, herriaren jakintza ahoz edo idatziz biltzen du, folklorea deritzoguna (Literatur Terminoen Hiztegia, 2020; Paya, 2013).

Literatura denboran zehar aldatzen denez gero, tradizioa bizia eta dinamikoa da. Bide horretatik, euskal literaturaren historia aztertzerakoan ezinbestekoa da, idazlanak kontuan izateaz batera, euskal gizartearen egoera soziolinguistiko eta politikoa arakatzea (Etxaniz, 2011; Lertxundi, 2003).

Kontuan hartu beharra dago euskara batuaren ofizialtasuna 1968an ezarri zuela Euskaltzaindiak, eta garai horretan hizkuntza eremu pribatuari zegokiola batez ere. Euskal Herriaren gaztelania (eta frantsesa Ipar Euskal Herriaren) goi mailako jendearen arteko hizkuntza zen; hau da apaizen eta nobleen artekoa. Ondorioz, euskal idazleek euskara bizirauteko nahia eta beharra plazaratu zuten idazlanetan (Etxaniz, 2011; Paya, 2013).

Euskal idatzizko literaturaren aleei eutsiz, zaharrenek XVI-XVII. mendeetan lekukotasuna dute, mende bat edo bi lehenagoko pasarteak

kontatzen ez baziren ere. Euskaraz idatzi zen lehenengo liburua, bertso eta olerki bilduma zena, *Linguae Vasconum Primitiae* (1545) izendatu zuen Bernart Etxeparek (Paya, 2013).

Erromantizismoan, ahozko literaturaren lehen bilketa lanak sortu ziren herrien berezitasunak biltzeko ahaleginarekin batera; hots, XV-XVI. mendeetako hainbat tradiziozko kanta berreskuratu ziren. Bestalde, denboran aurrera eginez, 1980ko hamarkadatik aurrera, euskal literatura historiaren ikuspegia aldatu zen literatura lanen eta idazki hutsen arteko bereizketa gailendu zelarik (Etxaniz, 2011; Etxebarria eta Kalzakorta, 2009; Paya, 2013).

XX. mendean ondarea utzi zuten biltzaileen artean, M^a Azkuek *Cancionero Popular Vasco* eta *Euskalerrriaren Yakintza* idatzi zituen. Honi jarraituz, Barandiaranek ipuin eta elezaharrak bildu zituen, Aita Donostia eta Riezu kantu arloan aritu ziren eta Lekuonak herri literaturaren inguruko ikerketa urratu zuen (Etxebarria eta Kalzakorta, 2009; Etxebarria Zamalloa, 2020).

3.2. EUSKAL HAUR ETA GAZTE LITERATURA (HGL)

3.2.1. Euskal HGLren historia

Haur eta Gazte Literatura definizio bakarra ez badago ere, idazlanen kalitatea eta kalitatezko literaturaren babesa definizio guztietan errepikatzen dira (Etxaniz, 1997).

Espainiako diktaduraren amaieran, euskal HGLn idazle askok bere lanak plazaratu zituzten (Etxaniz, 2005). Alde horretatik, ahoz transmititutako materiala bildu eta umeen unibertsoan ekarpenak egin ziren (Descloit, 2003). Hala nola, Wilden, Grimm anaien, Perraulten eta Andersenek ipuinak, baita Esoporen alegiak ere (López Gaseni, 2000).

70ko hamarkadan, eskola euskaldunak ezartzen hasi zirenez, euskaraz irakurgai eta testu liburuak sortu zituzten adituek (Arroitajauregi, 2012). Hamarkada honen geroztik, HGLn balioen aldaketa gertatu zen; hots,

autonomia eta askatasuna bezalako gaiak nagusitu ziren (Arnal, 2019). 80ko hamarkadan, euskal ipuin tradizionalen bilduma zaindua argitaratu zen: *Axut saila* (Etxaniz, 2005). Horrez gain, HGLko klasiko gehienak euskaratu ziren: alegia, Kipling, Verne eta Scott bezalako egile ospetsuak (López Gaseni, 2000).

Ipuin tradizionalei helduz, gehienak XIX-XX. mende bitartean idatziz jaso dira. Euskal Herrian ikus, adibidez, Mari, Tartalo, Txomin ipurdi, Makilakixki, Mari Xor, Ikaro eta Midas mitoak. Horrenbestez, erreferentziazko euskal idazleen artean, Etxepare, Oihenarte, Axular, Mogel, Añibarro, Frai Bartolome, eta Mendiburu ditugu. Nabarmentzekoa da Bizenta Mogelek alegiak euskaratu zituela *Ipui onac* (1804) lanean (Rodríguez-Miñambres, Itziar eta Etxaniz, 2019).

Alabaina, klasikoek ahozkotik idatzizkora igarotzean moldatzailearen eskuetan egon dira (Etxaniz, 2011). Hori horrela, euskal kulturaren ipuin klasikoak kristauen ikuspuntutik kontatuak ziren, jatorrizko testuen izaera desegokitzat jota unean uneko eta lekuan lekuko moralaren arabera (Rodríguez-Miñambres, et. al., 2019).

Azkenengo hiru hamarkada hauetan, Euskal HGL “profesionala” sortu da. Alde horretatik, bi bide egin ditu: literatura tradizionalarena eta egungo korrante berritzaileena (Etxaniz, 2005). Lehenengoari eutsiz, Lertxundik *Haur literaturaz* (1982) eta Igerabidek *Bularretik mintzora: haurra, ahozkotasuna eta literatura* (1993) lanak idatzi zituzten. Bestalde, egun, abenturazko, umorezko eta misteriozko obrak idatzi dituzten egileen artean Patxi Zubizarreta, Pako Aristi eta Mariasun Landa aipatzekoak dira (Arroitajuregi, 2012; Etxaniz, 2005).

Horrenbestez, 1990ean, Galtzagorri Elkarteak sortu zen euskarazko HGL sustatzeko eta ezagutarazteko xedearekin. Alde horretatik, umeentzako *Bularretik mintzora* eta *Mintzoan kux-kux* egitasmoak sortu ditu. Bestalde, *Klis-Klasikoak* liburu bilduma asmatu zuen euskarazko literatur obra kanonikoak eta klasikoen itzulpen egokiak eskaintzeko. Halaber, elkarteak *Aretoak* antolatu ditu idazlan klasikoak eta Haur Poesia gaiak jorratzeko (Galtzagorri, 2020).

3.2.2. HGLren ezaugarriak eta funtzioak

Literaturara hurbiltzea, imajinariora hurbiltzea da; gaiek errealitatetik fantasiarako bidea egiten dute. Gizakiak ezagutzeko balio du literaturak; izaera ezaugarriak ezagutzeko pertsonaien jokabideaz alegia. Horrez gain, mundua ulertzeko baliabidea da; gizakiaz gogoeta egiteko elementua. Beste hitz batzuetan esanda, ipuinek bizitza ulertzen, beldurrei eta oztopoei aurre egiten laguntzen gaituzte (Colomer, 2005; Rodríguez-Miñambres, et. al., 2019).

Horretaz aparte, literaturari esker leku eta garai desberdinetara bidaiatu dezakegu (Etxaniz, 1997). Horrenbestez, haien mezu eta balioek egungo errealitatea ikuspegi kritiko batetik ikusten laguntzen gaituzte. Azaldutakoaren ildotik, testuak ez dira eraldatu behar; haien gaineko hausnarketa egiten ikasi behar dugu. Igerabidek (2003a, 48.or.) aipatu bezala “ideologia aldetik aldaketak egiten ibili gabe, tradizioa erabili egin behar da, sentsibilitate literarioz erabili ere, horrela materiala “berez” eraldatu dadin”.

Oro har, istorio klasikoen atzean irakaspen bat ezkututzen da. Irakaspen horrek herri desberdinetarako baliagarria izan daiteke. Izan ere, klasikoek irakurle kopuru beste, irakurketa eta berrinterpretazio mailak eskaintzen dituzte (Rodríguez-Miñambres, et. al., 2019).

3.3. HAUR POESIA

Poesia terminoak, grekoz *poiesis*, sorkuntza, asmakizuna eta fikzioa esanahia du. Euskaltzaindiaren Literatur Terminoen Hiztegiaren arabera (2020) “Mintzairaren antzea, zerbait adierazteko hitz neurtuen, erritmoaren eta hoskidetasunaren harmoniaz eta irudiez baliatzen dena”. Beraz, esan daiteke poesiak harreman estua duela musikarekin, hotsekin eta ahozkotasunarekin.

Haur Poesiaren definizio batera hurbiltzeko asmoz, objektibotasun kutsutik aldenduz, Herizek (2017, 6.or.) egindako lanaren erreferentzia egin daiteke, “Haur poesia mundu bat da, mundu bizi, alai eta magikoa. Fantasiaz beteriko gotorlekua da. Amildegirik garaiena izan daiteke, putzurik sakonena,

kobazulorik ilunena, deserturik bustiena edota munduaren bukaerako lurmuturra. Haur poesia, amestu dezakegun guztia da, isiltasunik zaratatsuena”.

3.3.1. Ezaugarri nagusiak

Igerabidek (2003a) *Haur poesia eta ahozko tradizioa* lanean adierazten duen bezala, hotsen musikalitatearen erritmoak eragina du sortzen den giroan. Alegia, lo kanten erritmoan erabilitako fonemen bidez babes giroa eta lasaitasuna lortzen da. Adibidez, hauetan n hizkia etengabe egoteak amatasunaren presentzia azpimarratzen duela ematen du.

Aldiz, kanta jostariagoetan i bokalak esna eta alai egoteko gonbidapena egiten du, musika-jolas bat eginez. Hori kontuan izanda, tradiziozko ahozko poesiak dituen formulak baliagarriak izan daitezke joko bati hasiera emateko, jolastu bitartean laguntza erritmikoa izateko. Izan ere, poesia bera ahozko jokoa da. Igarkizunen kasuan, iradokizuna eta musikalitatea bereizgarri dira, baita onomatopeien erabilera ere. Horrez gain, zenbait poemek sarrera adierazten dute, ipuin labur eta estilizatuak balira bezala (Igerabide, 2003a; López, Jerez eta Encabo 2010a).

Oro har, poesiaren bidez umeek hizkuntza garatzen dute hitzezko komunikazioa etengabeko erabileran baitago. Izan ere, umea idatzizkotik urrunago bizi da ahozkotik baino, “hitzaren taupada mugikorretik gertuago, hitzaren letra finkotik baino” Añorgaren (2011, 25.or.) hitzak gogora ekarriz. Igerabidek (2011) bihotzetik bihotzerako komunikazioaren alde eginez, emozio eta sentipenen adierazpenean oinarritutako ahozkotasuna aldarrikatzen du; norbanakoaren barne munduari dagokiona, hain zuzen. Horrenbestez, hiztegi berria entzuten dute, esaldiak sortzeko egiturak eta hitzen esanahi berriak bereganatzen dituzte umeek (Assunção, 2006). Aldi berean, poesiak dituen errima eta erritmoaren bidez oroimena lantzen da (Bilbao, 2018).

Umeek poesiarekiko harremana ezartzerakoan, eraiki beharreko lehenengo bidea belarrian lekukotasuna du. Hau da, entzuten ikastea

lehendabiziko urratsa, hotsek gure barnean durunda sortu ditzaten. Iraganerako jauzia eginez, amaren bihotz taupadek hots eta erritmo gozoa sortzen dutela medio, biko erritmo eta hots epeleko musika atsegin zaie umeei (Igerabide, 1994b). Alde horretatik, hotsen musikaltasunaren bidez, umeek mundua hautemateko bide artistiko gisa dute poesia (Lertxundi, 2003).

Bigarren bidea, aldiz, begietan oinarritzen da; iruditegian hain zuzen. Honek adierazpide aukerak eman ez ezik, ezagupena suspertzeko baliabidea ere da. Poesiaren alorra amaigabea da, “ezagutzen ez dugunak ez baitu amaierarik” (Igerabide, 1994b, 9.or.). Irudi poetikoak inguruarekiko mirespena eta bizipen jakituria erakusten du, sinbolo bilakatzera jotzen duen heinean. Umeak irudi hutsetik sinbolikorako bidean, tradizioak, historia eta mundua ezagutzeko ikuspuntuak eskuratzen ditu.

Azaldutakoaren ildotik, entzumena eta ikusmena uztartuz, efektu estetiko eta emozional banaezina sortzen da; atsegintasunari eta sentimenduei dagokiona alegia. Umeak bere sentikortasuna garatzen duen heinean, hotsen erritmoak sorrarazitako harremanak eraikitzen du. Hortaz, umea irudia eta sinboloa ulertzera hurbildu dezakegu. Lertxundiren (2003, 24.or.) hitzak gogora ekarriz “sentiberatasun literariorik gabe, nekez balia daiteke ez tradizioa ez beste edozein material” (Lertxundi, 2003; Pelegrín, 2003).

Bestalde, Igerabidek (2003a) bi ezaugarri nabarmentzen ditu: biltegia eta erabilera. Oro har, Haur Poesiak biltegi bat izan behar du, non bertan lan egin ez ezik, berriztu ere egiten den. Haatik, biltegi hori zenbat eta handiagoa izan, orduan eta erabilera aberasgarriagoa gertatzeko aukera egongo da.

3.3.2. Euskal Haur Poesia

XX. mendean, Haur Poesia genero minoritarioa zen arren, lehenengo erreferenteak agertu ziren: *Oxobik Haur-elhe haurrentzat* (1944), Marijane Minaberrik *Xoria kantari* (1965) eta Nemesio Etxanizek *Lur berri billa* (1967) lanekin. 70ko hamarkadan, Haur Poesiak ospea eskuratu zuen jauzi

kuantitatiboa eta kualitatiboa eginez. Folkloreak laga zuen lanen artean Xabier Etxanizen *Haur folklorearen bilduma* (1986) eta Anjel Lertxundiren saila, *Maria Goikoarenak* (1985-86) aipatzekoak dira. Horrenbestez, Igerabidek *Beginiaren poemak* (1982) bildumarekin erreferente bihurtu zen. Aditu honek praktika poetikoa burutzeaz gain, haiku japoniarren ekarpenak eta naturarekiko ikus-sentsibiltatea ere eskaini du. Hots, *Egun osorako poemak eta beste* (1993) eta *Haur-korapiloak* (1997) poema bildumetan balioetsi daiteke (Arroitajauregi, 2012; Etxaniz, 2020; Etxaniz eta López, 2009; Igerabide, 2009).

Milurteko berrian, Igerabidek idazteari jarraitasuna eman zion *Munduko ibaien poemak* (2004), *Gorputz osorako poemak* (2005), *Hirurogeita lau kanta eta olerki umeentzat* (2012) eta *Ur: euriaren liburua* (2014) lanen eskutik. Xabier Olasok, igarkizun eta aho-korapiloaz jositako *Auskalo!* (2001) idatzi zuen. Izan ere, *Pupuan trapua* (2004), Euskadi saria jaso zuena 2005ean, eta *Hotsateko basoan* (2005) onomatopeiak, olerki eta herri literatura euskarri dira (Etxaniz, 2020; Etxaniz eta López, 2009; Galtzagorri).

Ildo beretik, Joxean Ormazabalek haurrentzako *Irri eta barre* (2002) poema-liburua publikatu zuen. Oro har, “dekorazio-olerkia, onomatopeia eta jolas bokalikoa” erabiltzen zuen (Etxaniz eta López, 2009, 29.or.). Bestalde, Antton Kazabonek *Armiarma zuhaitzean* (2004) alfabeto poemategia idatzi zuen. Pello Añorgak, ordea, paradoxa eta hitz-jokoz jositako *Zuni* (2006) poema-liburua argitaratu zuen baita *Zupankapaloak* (2018) bigarren edizioa ere (Etxaniz, 2020; Etxaniz eta López, 2009; Galtzagorri).

Haur Poesian lehen aldiz aritu direnen artean, Jon Suarezzen *Ilbetea dilindan* (2002), Ana Urkizaren *Nire hiriko poemak* (2006), Ruben Ruizen *Sekretuak belarrira* (2007) eta Itziar Zubizarretaren *Bularretik mintzora* (2007) eta *Jolas-molas* (2011) poesia-liburuak ditugu. Horiez gain, Leire Bilbaok *Xomorropoemak eta beste piztia batzuk* (2016) lanarekin Euskadi Saria (2017) irabazi du. Bestalde, Iñigo Astizen *Joemak eta Polasak* (2019) lanean kaligramak agertzen dira (Etxaniz, 2020; Etxaniz eta López, 2009; Galtzagorri).

Azkenik, Haur Poesiako bi antologia aipatzekoak dira: *Zaldiko-maldikoan* (2003), eta *Haurrentzako euskal poesiaren antologia* (2004) non hamabi poetaren olerkiak bildu ziren (Galtzagorri).

3.3.3. Poesia Haur Hezkuntzan

Eskolak umea hitzaren erabilera estetikora hurbiltzen lagundu behar du, hura elementu ludiko gisa erakutsiz (Arnal, 2019). Argi izan behar dugu poesiaren helburua gozatzea izan behar dela. Umeek aho-korapiloak, hitz-jokoak eta igarkizunak entzuterakoan poesia bezala ez identifikatu arren, gustuko dituzte; harekin plazer izaten irakatsi behar diegu. Hortaz, hotsekin jolasten erakusten dieten bitartekariak behar dituzte (García Tejeiro, 2003). Alegia, familia, eskola eta Haur Literatura (Igerabide, 2003a).

Horrenbestez, Haur Poesiak dituen erronken arteko oreka mantentzen saiatu behar du eskolak. Hau da, poesia umeen mundutik hurbil egotearen eta umekeria ez jaustearen artekoa (Igerabide, 2009). Hortaz, gaiek umeen egunerokotasunean presente dagoen zerbaitekin erlazioa izan behar dute; esaterako, eguzkia, izarrak, lagunak, eskola, familia... Horrez gain, umea etapa animista bizitzen ari denez, animaliei buruzko poesiak ulertzen dituzte errealitatearekin nahastu gabe; hala nola, pertsonekin harremanak egiteko, pentsatzeko eta hitz egiteko gaitasuna duten animaliak (López, et. al., 2010b).

Kontuan hartu beharra dago umeek hotsen musikalitateari ematen diotela arreta handiagoa edukiari baino; zentzumenak aktibatzen dituzten jardueri alegia. Alabaina, zenbait kasutan, umeek olerki bat entzun ondoren haren esanahiaren inguruan galdetuko dute. Kasu horietan, jolasetik sentimendurako bidea eraikiko da, hots, ikuspegi desberdinetatik ikusteko bidea eskaintzen baitu poesiak. Halaber, izpiritu kritiko, hitzen magia eta bihurrikeriaz disfrutatzeko eta sentimenduak adierazteko aukera sustatzen du (Desclot, 2003; García Tejeiro, 2003).

Azaldutakoa kontuan izanda, olerki bat errezipitatzekoan adi egon behar gara erabiltzen dugun ahots doinua, erritmoa, isiltasuna, gorputz mugimendura eta aurpegiaren adierazpenenera; hauek eragina dute umeen arretan. Bai eta poesiaren iraupena ere eragina du; umeei interesa eta arreta mantendu dezaten laburra izan behar da. Horrez gain, Haur Hezkuntzarako proposenak diren poesiak erritmo erregular eta nabarmena, etenak, errima asonante eta banandua, errepikapenak eta leloa dutenak dira. Halaber, onomatopeiak dituztenak ere egokitzat jo ditzakegu. Oro har, jostailu bihurtuko dugu hitza; hura eraldatuz, hautsiz eta birsortuz; honek barrea eta jolasa eragingo die umeei (Assunção, 2006; García Tejeiro, 2003; López, et. al., 2010a; 2010b).

Jarduerak desberdin egiteko, irakasleak testu liriko bat errezipitatu dezake mozorro bat erabiliz, txotxongiloak, antzerkia eginez, musika jarritz edo irakurketa dramatikoak aurrera eramanez. Halaber, irakurtzen ari den testua marrazkien, piktogramen edo txartelen bidez erakutsi dezake. Era berean, hasiera batean isiltasun une bat egotea funtsezkoa da; umeei parte hartzeko eta haien artean harremanak izateko beharra sortuko zaie. Are gehiago, irakasleak egiaztatu dezake umeei barneratzen, interpretatzen, erlazionatzen, eraikitzen edo disfrutatzen ari diren testu poetikoaren entzuketarekin. Bestalde, ekintzak sekuentziatzea ezinbestekoa da ulerkorak izan daitezen eta jolasteko eta ondo pasatzeko momentua egon dadin (Assunção, 2006).

3.4. HAUR POESIA ETA JOLASA: GOZATZEKO BIDEA

Igerabideren aburuz, Haur Poesiaren ezaugarri nagusia honetan murgiltzeko bidea eraikitzea da; hots, urrats nahitaezkoa dirudi hitzarekin jolasteak. “Hitzaren jolasa da poesiaren atea. (...) haur poesia ibilbide bat da, hitzarekin jolas egitetik objektu estetikoak eraiki eta gozatzera daraman ibilbidea” (Igerabide, 2003b, 64.or.).

Idea horren ildotik, jolasa ahozko poesiatik eratorria dela adierazten du Pelegrinek (1993). Alegia, XVIII. mendean kokatzen du jolasaren sorkuntza, ahozko testuaren aztarna jarraituz. Horrez gain, jolas-errimak antzerki

eszenatoki txikitzat hartzen ditu. Beste hitz batzuetan esanda, hitzezko eta gorputzezko hizkuntzaren bidez olerki ludikoa eraldatu eta jolas dramatikoak bihurtzen du. Izan ere, dramatizazioan eta jolas-erriman mezu poetiko bat transmititzen da aldibereko espazio eta denbora batean.

Are gehiago, poesia eta jolasa estuki lotuta daude haurtzaroan. Poesia jolas bat bezala antzeman behar da, umeen gustuko zeregina jolastea baita. Hots, jolasteko objektu gisa bihurtzen da poesia, beraz, jolas guztiak bezala, dibertimendu atseginekoa da eta entretenimendua, jarrera baikorra, eta aktibotasuna dakar. Halaber, arreta maila eta motibazioa areagotzen laguntzen du. Plazera dela medio, autoestimua eta autokontzeptua igotzen da; umea parte-hartzerakoan asebeteta sentitzen baita. Beste aldetik, inguruarekiko eta gizartearekiko harremana ahalbidetzen du jolasak. Irudimena eta sormena areagotu ez ezik, komunikazioa eta adierazkortasun gaitasuna hobetzen ere laguntzen du. Hortaz, umeek poesiarekin batera sortzeko eta bizitzeko, harreman estua eraiki behar da non irudimena, jolasa eta liburuak presente dauden (López, et. al., 2010a; Cabello, 2011).

Horrenbestez, umearen sentimenduak, interesak eta zaletasunak adierazteko biderik garrantzitsuena da jolasa. Ezin da ahaztu hura umearen lehenengo hizkuntza dela; bere komunikatzeko modurik naturalena hain zuzen ere. Ildo beretik, hizkuntzaren garapenera bideratua egon daiteke garapen afektibo eta emozionala sustatuz. Hots, libreki adierazteko aukera ere eskaintzen du, energia modu baikorrean bideratzeko eta tentsioak husteko (Chamorro, 2010). Oro har, umei momentu ludikoa eskaini behar zaie unibertsoaren pertzepzioa, afektibitatea eta sorkuntza garatu ditzaten. Modu honetan, bizipen poetiko zoragarria izan dezakete (Assunção, 2006).

3.5. CURRÍCULUMAREN AZTERKETA

EAEko Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura sailak (2016) zehaztu egin ditu zenbait gaitasun eta edukiak Haur Hezkuntzako Curriculumean. Hortaz, poesia eta jolasaren arteko oinarritapen teorikoa topa dezakegu bertan.

Umeek, eguneroko arazo-egoerak ebazteko gai izan daitezten, esperientzia-eremuen bidez zenbait konpetentzia espezifiko eskuratu dezakete; poesia eta jolasa aintzat harturik. Lehenengoa, hizkuntza eta literatura komunikaziorako konpetentzia da, hezkuntzak literaturarekiko hurbilpena egiten baitu umeek bizipen gozagarriak izan, literatura-testuak entzun eta moldatu ditzaten. Bigarrenak, aldiz, arterako konpetentziak, adierazpen kulturekiko interesa umeengan pizteko asmotan, irudimena eta fantasiaz elikatzen die abesti, dantza eta mugimenduak eskainiz. Azkenengoa, konpetentzia motorra, jolasarekin estuki lotuta dago; umei aurpegi, mugimendu, gorputz-jarrera, ideia eta emozioak adierazten, interpretatzen eta balioesten lagundu diezaieke.

Arestian aipatutako esperientzia-eremuak, bitan banatzen ditu Haur Hezkuntzako Dekretuak. Lehenengoaren, «Norberaren nortasunaren eta ingurune fisiko eta sozialaren eraikuntza», helburuei oratuz, (1) ongizate emozionalari eta fisikoari dagozkion jarrerak lantzea, segurtasun afektiboa finkatu eta eguneroko bizitzako egoerez gozatzea dugu. Poesia eta jolasaren bidez landu beharreko eduki eta ebaluazio adierazleekin jarraituz, informazio hau topa dezakegu:

1. Multzoa: Nortasuna eraikitzea	<ul style="list-style-type: none"> - Jolasaren bidez ingurunea arakatzea. - Jolas sinbolikoaren bidez, egoerak eta pertsonaiak antzeztea. - Jolas-arauak ulertzea eta onartzea. - Konfiantza izatea norberaren ekintza-ahalmenean eta jolasetan parte hartzea eta saiatzea.
Ebaluazio adierazleak	<ul style="list-style-type: none"> - Jolasetan gogoz parte hartzen eta laguntzen du. - Jolas simple batzuen arauak onartzen eta betetzen ditu. - Sentikorra da gainerako pertsonen aldartearekin, interesekin eta gogoarekin. - Sumisio eta nagusikeriazko jarrerak baztertzen ditu.

«Norberaren nortasunaren eta komunikazioaren eraikuntza eta irudikapena» eremuan, aldiz, poesia eta jolasa bermatzen dituen hurrengo helburuak daude: (2) hainbat kultura-tradiziotako testu batzuk ulertzea, azaltzea

eta moldatzea, haiekiko interesa izateko, haiek balioesteko eta haiekin gozatzeko, eta (3) arte-produkzioetan parte hartzea, komunikazio-aukerak arakatu eta kultura bera ulertzen hasteko. Ildo horretatik, eduki eta ebaluazio irizpideei buruz hurrengo informazioa agertzen da curriculumean:

1.Multzoa: Hitzeko komunikazioa	<ul style="list-style-type: none"> - Ahozko testu errazak ulertzea: esaera zaharrak, asmakizunak.... - Ahozko jolasetan sormena adieraztea. - Literatura-testu errazak entzutea, ulertzea eta errezitatzea. - Literatura-testu errazak dramatizatzen parte hartzea. - Atzerriko hizkuntzan dauden abestien, ipuinen, olerkien edo errimen zatiak entzutea, haien mezu orokorra ulertzea, buruz ikastea eta errezitatzea.
2.M.: Gorputz hizk.	<ul style="list-style-type: none"> - Jolasetan, dantzetan eta gorputz-adierazpen jolas-jardueretan parte hartzea. - Besteen adierazpen eta azalpenekiko interesa eta begirunea izatea.
4.M.: Arte kom.	<ul style="list-style-type: none"> - Folklorea balioestea eta harekiko interesa izatea.
Ebaluazio adierazleak	<ul style="list-style-type: none"> - Ahozko literatura-ekoizpenak gogoz entzuten eta ulertu egiten ditu. - Ahozko hizkuntza darabilten jardueretan parte hartzen du. - Jolasetan, beste pertsonen komunikazio-xedeak ulertzen ditu.

Oro har, curriculumak poesia eta jolasaren erabilpenaren alde egiten duela esan daiteke. Azkenengo hauek umearen garapen integrala sustatzen dutela ulertuz. Hortaz, onuragarria izango da umearentzako poesia eta jolasarekiko harremana eraikitzea. Alegia, bi hauen bitartez umeek errealitatea ulertu ez ezik, egunerokotasunean sortzen zaizkien arazo egoerak ebazteko zenbait trebetasun, ezagutza eta estrategiak eskuratuko baitituzte.

4. HELBURUAK

Arestian aurreratu bezala, GrALa galdera eragile batzuen ildotik bideratu denez gero, zenbait helburu ezarri dira alor akademikoa barne hartuz. Lehendabizikoa, Haur Poesiaren presentziaren garrantzia azaleraztea da; egun, arte honen erabilera eroraldian baitago. Ildo horretatik, helburu hori osatze aldera, azpi-helburu gisa ezarri dira: HHn poesiak duen esanahia azaltzea, poesiarekiko harremanaren garrantzia gailentzea eta poesia lantzeko bidea zehaztea transmisioa esanguratsua izan dadin. Proposamen didaktikoari erreparatuz, edozein hezitzaierentzako baliagarria izan daitekeelakoan, HHn poesia ezartzeko eredu didaktiko bat diseinatzea; umeei gozatzea, ikastea eta haren interesak piztea kontuan hartuz. Alde horretatik, didaktikoki programatzen jakitearen gaitasuna garatzea.

Xede pertsonalei oratuz, Haur Poesia sakonki arakatzea eta, irakasle gisa, gai honetan trebatzea. Are gehiago, GrALaren prozesuan zehar ikastea ezinbestekoa delakoan, konpromisoa eta gogoa izatea.

Orain arte azaldutako helburuak laburbilduz, honako hauek dira:

- Haur Poesiaren presentziaren garrantzia azaleraztea.
 - HHn poesiak duen esanahia azaltzea.
 - Poesiarekiko harremanaren garrantzia gailentzea.
 - Poesia lantzeko bidea zehaztea.
- Didaktikoki programatzen jakitea.
- Haur Poesia sakonki arakatzea eta gaien trebatzea.
- Graduak ezagutzak baliatzea eta GrALaren prozesuan konpromisoa zein gogoa izatea.

5. POESIA GOZATU ETA MUNDUA DASTATU

5.1. Sarrera

Orobat, poesiak gizartearen arimaren gordailuan du jatorria, ahozko literaturan hain zuzen ere (Etxebarria Zamalloa, 2020). Poesia sortu zen garaian, pertsonak belarrietatik kulturaz elikatzen ziren, alegia, ahoz jasotzen zuten kultura. Igerabidek (2017, 39.or.) azaltzen duen moduan, “Urte gutxitan belarriko kulturatik begiko kulturara igaro gara”, irakurketaren erritmo eta hitzen sakontasunari arreta bideratu gabe, “Eta begiak, etorkizunean, itsutu nahi ez badu, belarriaren sostengua beharko duelako izan” (Añorga, 2011, 28.or.).

Idea horren ildotik, belarrien irakurketari lehentasuna emango diogu proposamenean. Are gehiago, poesia osatzen dituzten hotsak aintzat hartuz, hauek jolas bilakatuko ditugu jardueretan. Modu honetan, poesiaren elementu xumeei arreta emango diegu, hotsei, alderdi ludikoa sustatzeko nahian eta umearen ahozkotasan emozionala garatzeko asmotan. Beraz, jardueretan poesiaz mintzo garenean, hotsei ere erreferentzi egiten diegu. Aipatutako ahozkotasan hori “beharrezkoa da pertsonaren garapenean barne-oreka bilatzeko; (...) batik bat hasierako urteetan” (Igerabide, 2011, 58.or.).

Proposamen den ildotik, ordutegia eskolaren arabera egokitu daiteke. Azpimarratu beharra dago jarduerak umeen beharren eta nahien arabera egokitu behar direla. Hori dela eta, ume taldearen arabera jarduera bakoitzaren iraupena luzeagoa edo laburragoa izan daiteke. Izan ere, lau asteetan zehar aurrera eramateko aurkeztuta dago, astero hiru saio eskainiz: astelehen, asteazken eta ostiraletan hain zuzen. Modu honetan, umeek poesiarekiko harremana ezartzeko aukerak modu orekatuan eskainiko dizkiegu.

Bestalde, espazioari erreparatuz, eskolek dituzten baliabideak kontuan izan dira; hortaz, gela egonkorra, patioa eta psikomotrizitate gela aintzat hartu dira. Azkenengo bi hauek mugimendu ekintzetan espazio handiagoa arakatzea ahalbidetzen baitute. Edonola ere, eskola bakoitzak dituen aukeren arabera

moldaketak egin ditzake. Esaterako, euria ari duenean, patioa erabili ordez, aretoa erabiltzea jarduera gauzatzeko.

Jardueren antolamenduari dagokionez, hiru multzo nagusitan sailkatuko dira: hasiera (jarduera 1), garapena (jarduerak 2-10) eta ebaluazioa (jarduera 11). Lehenengoa, poesiak egiten duen bezala, errealitatea hautemateko milaka modu daudelako ideian oinarritzen da. Hortaz, *kotxea* erreferentzia gisa hartuz, ikuspuntu desberdinetatik antzekotasunak eraikiko dituzte umeez, norbanakoaren ikusmoldearen arabera; alegia, metafora zerrenda osatuz.

Garapeneko jarduerak direla eta, poesia jolas gisa erakustean datza, umeen interesak, ikaskuntza eta ongizatea sustatzen diren bitartean. Bide horretatik, olerkiak dramatizatu, sokasaltoan aritzeko kantak ezagutu, atsotitzak *puskatutako hotsen* bitartez ahoskatu eta gogoratu, lo kanten laguntzaz erlaxazio saioa egin, asmakizunak IKTn irudikatu, jolas poemak margolen bidez adierazi, olerkiak gorputz-perkusioz adierazi, aho-korapiloen giza puzzlea sortu eta onomatopeiak adierazten (ahoz zein gorputzez) ikasiko dute.

Ebaluazioko jardueran ordea, *hotsen jolasaren* bidez umeez aldeztetik gauzatutako jarduerak berrikusteko eta biziberritzeko aukera izango dute. Jolas honetan burutu beharko dituzten probak, aurretik egindako jarduerekin erlazionatuta baitaude.

Jardueraz gain, poesia errutinetan txertatzeko aukera dago, hots, umeen egunerokotasunean hazteko zertzeladak proposatuko dira. Lehendabizikoa, norbait hautatu edo taldeak sortu behar diren momentuetan, tradiziozko ahozko poesiari etekina ateratzea praktikan erabiltzeko. Hori dela eta, baliagarriak izango direlakoan, zenbait zotz formula eskainiko dira (Ikus 1. eranskina). Bigarrena, astero gelara sartzeko pasahitza ezartzea; atsotitz bat izango dena hain zuzen (Ikus 2. eranskina). Hortaz, goizetan eta arratsaldeetan gelara sartzeko unean hotsak jolas bilakatzeko tartea sortuko da, umeez oroimena, ahozkotasuna eta hiztegia aberasten duten heinean. Azkenengoak gozamenerako irakurketarekin harremana du. Beraz, astero une bat ezarriko da

poesia entzuteko; esaterako, ostegun arratsaldero bi jolas poema irakurtzea (Ikus 2. eranskina).

5.2. Ikuspegi kurrikularra

Arestian azaldu bezala, Haur Hezkuntzan umeez zenbait gaitasun eskuratu ditzaten, esperientzi-eremuetan bereiziz, curriculumean (EAEko Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura saila, 2016) hainbat helburu ezarrita daude. Ildo horretatik, *Poesia gozatu eta mundua dastatu: hotsak jolas bilakatzeko* proposamenak marko teorikoan azaldutako ikuspegi kurrikularra bermatzeaz gain, hurrengo lerroetan azalduko diren xede, eduki eta gaitasunak ere landuko ditu; hauek lortzeko bidea eraikiz (Ikus 5. eranskina).

Alde horretatik, proposamenean helburu hauek gehitu dira:

1. Eremua	<ul style="list-style-type: none">• Gorputza kontrolatzeko bidea urratzea.• Ekimenak abiatzea eta norberaren ekintzak planifikatzea eta egituratzea.• Errespetu, laguntza eta lankidetzako jarrerak eta ohiturak lantzea.• Gailu teknologikoak erabiltzen hastea.
2. Eremua	<ul style="list-style-type: none">• Emozioak eta sentimenduak ezagutzea eta horiez jabetzea eta adieraztea.• Ahozko hizkuntza erabiltzean balioestea.• Askotariko testuingurutan erabiltzea matematika-adierazpenak.

Helburuei erreparatu ondoren, horiek lortzeko nahitaezkoak diren edukietan oinarrituko gara. Izan ere, alde aurretik azaldutako nortasunaren eraikuntza (1. Eremua; 1. multzoa), hitzeko komunikazioa (2. Eremua; 1. multzoa), gorputz-hizkuntza (2. Eremua; 2. multzoa) eta arte-komunikazio moduak (2. Eremua; 4. multzoa) edukiak lantzeaz gain, matematika hizkuntza (2. Eremua; 3. multzoa) ere jorratzen da proposamenean.

Azaldutakoaz gain, bi eremuek komunean dituzten edukien artean, proposamenean hurrengoak jorratuko dira: informazioa ulertzea,

sekuentziatzea (aho-korapiloen bertsoak ordenatzean) eta aztertzea (olerkia dramatizatu aurretik); ideiak sortu eta adieraztea (dramatizatzean eta margotzean). Azkenik, elkarlana eta lankidetzan taldean ikasteko eta komunikatzeko; jardueretan pertsonen arteko harremanak garatuko dituzte.

Oro har, azaldutako esperientzia-eremuen bitartez lantzen diren konpetentzia espezifikoak, marko teorikoan agertzen direnaz gain, konpetentzia matematikoa, teknologikoa eta soziala landu dira proposamenean. Konpetentzia orokorrak, aldiz, norbera izaten ikasteko konpetentzia eta, hitzezko eta hitzik gabeko komunikaziorako eta komunikazio digitalerako konpetentzia ditugu.

Hezkuntza-prozesuaren elementuetako bat ebaluazioa da; prozesu hori bera eta irakaskuntzaren kalitatea hobetzea helburu gisa izanda. Hortaz, ume bakoitzaren egoera pertsonal eta sozialari buruzko informazioa bildu behar du irakasleak, baita umearen garapena bultzatzeko egingo diren jarduerak bideratzen lagun dezaketen datu guztiak ere. Haur Hezkuntzan ebaluazio-tresna egokiena behaketa izateaz gain, umeen garapen prozesua jasotzen laguntzen du. Hori kontuan izanda, proposamenean umeen ahaleginak eta hobekuntzak jasotzeko behaketa taula sortu da (Ikus 3. eranskina). Bestalde, proposamena bera ebaluatuko da (Ikus 4. eranskina).

5.3. Jardueren programazioa

Proposamena, hotsak jolas bihurtzeko asmoarekin, hamaika jardueraz osatuta dago. Asmoari eutsiz, hasierako jardura poesiarekiko lehenengo harremana izateko pentsatuta dago; gainerakoak, ordea, hotsetik jolaserako ibilbidea eraikitzeke dira, prozesuan zehar ikasi eta disfrutatu bitartean.

Alde horretatik, jardura bakoitza aurkezteko fitxa bat sortu da, non honako atal hauek agertzen diren: azalpena, helburu kurrikularrak, lantzen diren gaitasunak, jarduerarako beharrezkoa den materiala, zein lekutan gauzatuko den eta gutxi gorabehera iraungo duen denbora.

5.3.1. JARDUERA: Kotxea ordezkatu eta irudimenaz jolastu

Azalpena			
<p>1. Korroan eserita, umeek begiak itxita izanda, <i>kotxe</i> bat imajinatuko dute. Horrez gain, <i>kotxe</i> horrek beste zerbait eraldatzeko gaitasuna izango balu, zer izango litzatekeen galdetuko diegu; esaterako, janaria, animalia, kirola, dantza mugimendua, kolorea... izango balitz. Umeek hitz/mugimendu bat aukeratuko dute bakarka eta isilean.</p> <p>2. Musikaren erritmoa jarraituz eta irakasleak esandakoaren arabera norabide berean dantzatuko dute: eskuak, belaunak, oinak eta hatzak erabiliz gorputz-perkusioa egiteko. Musika eteten den bakoitzean, geldirik geratu behar dira eta ume bat zirkuluaren erdigunera sartu behar da esatera: "<i>kotxea</i> ordez, ...". Hots, pentsatutako hitzarekin esaldia osatuz eta haien hitzekin arrazoituz.</p> <p>3. Bukatzerakoan, errepasso erronda egingo da guztiek pentsatutako hitza errepikatuz. Azkenik, irakaslearekin hitz egingo dute ikuspuntu aniztasunari buruz; alegia, subjektu berdina adierazteko milaka modu daudela, ez dagoela erantzun zuzen bakarrik.</p>			
Helburuak		Gaitasunak	
<ul style="list-style-type: none"> • Gorputza kontrolatzea. • Errespetu, laguntza eta lankidetzako jarrerak eta ohiturak lantzea. • Ahozko hizkuntza balioestea. • Arte-produkzioetan parte hartzea. 		<ul style="list-style-type: none"> • Hizkuntza komunikazioa. • Soziala eta zibikoa. • Arterakoa. • Motorra. 	
Materiala			
<ul style="list-style-type: none"> • Musika: <ul style="list-style-type: none"> • Africa banbaataa "planet rock" • Duke ellintong "c jam blue" • Schiarazula marazula "musica antiqua" 			
Lekua	Gela egonkorra	Denbora	40´

5.3.2. JARDUERA: Hotsen dramatizazioa

Azalpena			
<p>1. Zotz egiteko formulaz baliatuz, irakasleak 4 talde osatuko ditu eta talde bakoitzari, ahoz, olerki bat eskainiko die. Taldeka, bururatzen zaizkien ideia, emozio, ekintza edo egoeretatik bat aukeratuko dute, ondoren, haien gorputza eta materiala erabiliz adierazteko.</p> <p>2. Taldeek materiala eskuratu ondoren, psikomotrizitate gelan bananduko dira; entseatzeko eta pentsatzeko espazioa izan dezaten. Laguntza eskaintzeko asmotan, irakasleak jardueran zehar talde guztietatik pasatzen egongo da.</p> <p>3. Umeek behar duten denboran entseatu ondoren, gelakideen aurrean antzeztuko dute irakasleak dagokien jolas poema irakurri bitartean.</p>			
Helburuak		Gaitasunak	
<ul style="list-style-type: none"> • Gorputza kontrolatzea. • Ongizate emozionalari eta fisikoari dagozkion jarrerak lantzea. • Ekimenak abiatzea eta norberaren ekintzak planifikatzea eta egituratzea. • Errespetu, laguntza eta lankidetzako jarrerak eta ohiturak lantzea. • Ahozko hizkuntza balioestea. • Arte produkzioetan parte hartzea. 		<ul style="list-style-type: none"> • Hizkuntza- eta literatura-komunikazioa. • Soziala eta zibikoa. • Arterakoa. • Motorra. 	
Materiala			
<ul style="list-style-type: none"> • Koloretako oihalak, kuxinak, kotoizko sokak, aparrezko hodiak eta pilotak eta kautxuzko uztailak. • Igerabide. (2005). <i>Gorputz osorako poemak</i>. 			
Lekua	Psikomotrizitate gela	Denbora	40´

5.3.3. JARDUERA: Hotsekin saltoka

Azalpena			
<p>1. Irakasleak 4-6 pertsonetako taldeak osatuko ditu zotz formula erabiliz.</p> <p>2. Patioan zehar sakabanututa daudela, irudimenezko soka batekin salto egingo dute. Izan ere, rolak etengabe aldatuko dira: (1) bi umek sokari indarra emango diote, (2) bik soka dutenen ezker aldean ilara egingo dute eta (3) beste bi sokasaltoan arituko dira. Abestia bukatzerakoan, eginbeharrak aldatuko dira: (3) → (1) egingo du, (1) → (2) eta azkenik, (2) → (3).</p> <p>3. Irakasleak abestu bitartean, sokasaltoan arituko dira umeak.</p>			
Helburuak		Gaitasunak	
<ul style="list-style-type: none"> • Gorputza kontrolatzea. • Ongizate emozionalari eta fisikoari dagozkion jarrerak lantzea. • Ahozko hizkuntza balioestea. 		<ul style="list-style-type: none"> • Hizkuntza- eta literatura-komunikazioa. • Soziala eta zibikoa. • Arterakoa. • Motorra. 	
Materiala			
<ul style="list-style-type: none"> • Etxaniz. (2009). <i>Puntan punta bat</i>. 			
Lekua	Patioa	Denbora	30´

5.3.4. JARDUERA: Puskatutako hotsak

Azalpena			
<p>1. Umeek gelako espazioan ilara batean zutik kokatuko dira. Horretarako, zotz formularen bidez ilaran egongo den lehenengo pertsona hautatuko da; honen ezkerraldeetik hasita, ilara osatzen joango dira gainerakoek.</p> <p>2. Irakasleak ilarako lehenengo pertsonari atsotitza esateaz arduratuko da. Izan ere, txanda bakoitzean ilarako lehenengo pertsona azkenengoa izatera pasatuko da. Bitartean, gainerako umeek ilararen amaierara bideratuko dute gorputza, belarriak eskuekin estalita dituztela. Ume bakoitzak atsotitza jaso ondoren, hurrengo lagunaren sorbalda ukitu eta ulertutako mezua helaraziko dio.</p> <p>3. Jarduera lehendabizi talde handian egingo da, beranduago, zotz formularen bidez, bi ilara sortuko ditugu elkarren artean paraleloki jarriz.</p>			
Helburuak		Gaitasunak	
<ul style="list-style-type: none"> • Ongizate emozionalari eta fisikoari dagozkion jarrerak lantzea. 		<ul style="list-style-type: none"> • Hizkuntza- eta literatura-komunikazioa. • Soziala eta zibikoa. • Arterakoa. • Motorra. 	
Materiala			
<ul style="list-style-type: none"> • Atsotitzak. 			
Lekua	Psikomotrizitate gela	Denbora	15´

5.3.5. JARDUERA: Etzandako hotsak

Azalpena			
<p>1. Umeak psikomotrizitate gelan, binaka, kuxinetan sakabanatuko dira. Bikoteak aukeratzeko irakasleak, aurreko jardueraren atsotitzak erabiliz, ume bakoitzari atsotitz bat esango dio belarrian. Umeek haien bikoteak topatu behar dituzte.</p> <p>2. Behin bikoteak elkartuta, ume bat etzanda dagoen bitartean, besteak kilimak edota masajea egingo dizkio; etzanda dagoen umeak nahiago duenaren arabera. Aldi berean, musika lasaiaren laguntzaz, irakasleak lo kanta bat abestuko die.</p> <p>3. Jarduera bi aldiz errepikatuko da, ume guztiak bi roletatik pasatu arte.</p> <p>4. Bukatzerakoan, bakoitzak jardueran zehar zein sentrazio, emozio, bere bizitzako zein pasarte gogoratu duen, begiak itxita zituenean zertan egon den pentsatzen... azalduko die gelakideei.</p>			
Helburuak		Gaitasunak	
<ul style="list-style-type: none"> • Ongizate emozionalari eta fisikoari dagozkion jarrerak lantzea. • Emozio eta sentimenduak ezagutzea, jabetzea eta adieraztea. • Ahozko hizkuntza balioestea. 		<ul style="list-style-type: none"> • Hizkuntza- eta literatura-komunikazioa. • Soziala eta zibikoa. • Arterakoa. 	
Materiala			
<ul style="list-style-type: none"> • Musika lasaia • Bilbao. (2016). <i>Xomorropoemak eta beste piztia batzuk</i>. 			
Lekua	Psikomotrizitate gela	Denbora	15'

5.3.6. JARDUERA: Hotsen *pictionary*-a

Azalpena			
<p>1. Umeak arbela digitalaren aurrean daudela, irakasleak asmakizuna irakurriko du (1. aldia). Bukatzean, zotz formularen bidez ume bat aukeratuko du eta asmakizunaren erantzuna belarrian esango dio.</p> <p>2. Honek, irakasleak asmakizuna (2. aldia) irakurri bitartean, arbela digitalean erantzuna irudikatuko du. Eginkizuna bukatzen duenean, gelakideek asmatu beharko dute erantzuna.</p> <p>3. Arestian aipatutako urratsak asmakizun adina errepikatuko dira.</p>			
Helburuak		Gaitasunak	
<ul style="list-style-type: none"> • Gailu teknologikoak erabiltzen hastea eta haien komunikazio-ahalmena balioestea. • Arte-produkzioetan parte hartzea. 		<ul style="list-style-type: none"> • Hizkuntza- eta literatura-komunikazioa. • Teknologikoa. • Arterakoa. • Motorra. 	
Materiala			
<ul style="list-style-type: none"> • Arbela digitala. • Etxaniz, X. (1995). <i>Igarkizunak</i>. 			
Lekua	IKT gela	Denbora	20´

5.3.7. JARDUERA: Hotsen adierazpena

Azalpena			
<ol style="list-style-type: none"> 1. Umeak gelako espazioan sakabanatuta egongo dira: lurrean eserita edo etzanda. Irakasleak olerki bat irakurriko du. Umeek, hori entzuterakoan, burura etortzen zaiena pentsatu beharko dute (1. aldia: umeak motibatzeke). 2. Irakasleak papera eta margoak banatuko dizkie. Berriz, olerkia irakurriko du eta umeek burura etortzen zaiena paperean islatuko dute; marrazki abstraktu edo zehatza eginez (2. aldia: ideia garatzeko). 3. Azkenengo aldiz irakurriko du irakasleak; umei haien marrazkietan azkenengo zertzeladak emateko aukera eskainiz. Hau da, kolore gehiago erabiltzeko edota xehetasun gehiago marrazteko (3. aldia: ideia sakontzeko). 4. Bukatzeko, ume bakoitzari bere marrazkia erakusteko eta azaltzeko aukera eskainiko zaio. 			
Helburuak		Gaitasunak	
<ul style="list-style-type: none"> • Ongizate emozionalari eta fisikoari dagozkion jarrerak lantzea. • Emozio eta sentimenduak ezagutzea, jabetzea eta adieraztea. • Ahozko hizkuntza balioestea. • Arte-produkzioetan parte hartzea. 	<ul style="list-style-type: none"> • Hizkuntza- eta literatura-komunikazioa. • Arterakoa. 		
Materiala			
<ul style="list-style-type: none"> • Koloretako paperak eta margoak. • Astiz. (2019). <i>Joemak eta polasak</i>. 			
Lekua	Gela egonkorra	Denbora	20´

5.3.8. JARDUERA: Kiku, kaikua hotsen ordua

Azalpena			
<p>1. Umeak, korroan eta zutik, irakasleak egiten dituen gorputz-mugimenduak errepikatuko dituzte abesten duten bitartean.</p> <p>2. Jarduera hiru zatitan bananduko da.</p> <ul style="list-style-type: none"> • <u>A zatia</u>: Gorputz-perkusioa erabiliz; 1) eskuak soilik; 2) eskuak eta belaunak 3) belaunak eta oinak; 4) eskuak eta hatzak; 5) eskuak, belaunak, oinak eta hatzak. • <u>B zatia</u>: Aurrekoari zailtasun bat gehituko diogu: hitz batzuk ezin izango dira esan, soilik gorputz-perkusioarekin adierazi. Ordena hau izango litzateke: Kiku, kaikua, lotan dago, katua, lapurra, txakurra, ilargi, lo daudenen eta zaindari. Hots, olerkia soilik gorputzarekin adierazi arte. • <u>D zatia</u>: A zatiari musika gehituko diogu. 			
Helburuak		Gaitasunak	
<ul style="list-style-type: none"> • Gorputza kontrolatzea. • Ongizate emozionalari eta fisikoari dagozkion jarrerak lantzea. • Arte-produkzioetan parte hartzea. 		<ul style="list-style-type: none"> • Hizkuntza- eta literatura-komunikazioa. • Arterakoa. • Motorra. 	
Materiala			
<ul style="list-style-type: none"> • Igerabide. (1994a). <i>Egun osorako poemak</i>. • Musika (1. jardueran erabilitakoa). 			
Lekua	Gela egonkorra	Denbora	30´

5.3.9. JARDUERA: Hotsen puzzlea

Azalpena			
<p>1. Irakasleak bi talde osatuko ditu (zotz formula erabiliz). Talde bakoitzari aho-korapilo desberdin bat eskainiko dio; are gehiago, taldeko partaide bakoitzari bertso desberdina. Aho-korapiloaren eskaintza nahaspilatua izango da; puzzle desordenatua balitz bezala, ondoren, umeez ordenatu dezaten. Talde bakoitzak bost bizitza izango ditu. Bizitza bakoitza irakasleak poema irakurtzeko balio du.</p> <p>2. Bi taldeek bukatzen dutenean, haiek ezarritako ordenan (lehenengoa, bigarrena, hirugarrena...) aho-korapiloa esango dute; taldekide bakoitzak bere bertsoa esanez hain zuzen. Ondoren, irakasleak jatorrizko aho-korapiloa irakurriko du, betebeharra lortu duten edo lortzear dauden egiaztatzeko.</p>			
Helburuak		Gaitasunak	
<ul style="list-style-type: none"> • Ekimenak abiatzea eta norberaren ekintzak planifikatzea eta egituratzea. • Matematika-adierazpenak erabiltzea. 		<ul style="list-style-type: none"> • Hizkuntza- eta literatura-komunikazioa. • Soziala eta zibikoa. • Arterakoa. • Motorra. 	
Materiala			
<ul style="list-style-type: none"> • Igerabide. (1997). <i>Haur korapiloak</i>. 			
Lekua	Gela egonkorra	Denbora	30´

5.3.10. JARDUERA: Onomatopeiekin jolasten

Azalpena			
<p>1. Umeak zutik daudela, korroan, irakasleak irudien bidez zenbait onomatopeia erakutsiko dizkie.</p> <p>1. <u>urratsa</u>: Onomatopeiak ahoz, keinuz eta irudiz eskaini, orden bera jarraituz. Lehenengoz, irakasleak adierazi, ondoren, umeek errepikatu.</p> <p>2. <u>urratsa</u>: Irakasleak irudiak erakutsiko ditu ordenatuta eta umeek keinua eta onomatopeia zein den adieraziko dute.</p> <p>3. <u>urratsa</u>: Irakasleak onomatopeia ahoz esango du, desordenatuta, eta umeek dagokion keinua egin behar dute.</p>			
Helburuak		Gaitasunak	
<ul style="list-style-type: none"> • Gorputza kontrolatzea • Ongizate emozionalari eta fisikoari dagozkion jarrerak lantzea 		<ul style="list-style-type: none"> • Hizkuntza- eta literatura-komunikazioa. • Arterakoa. • Motorra. 	
Materiala			
<ul style="list-style-type: none"> • Musika (1. Jardueran erabilitakoa). • Onomatopeiak. 			
Lekua	Gela egonkorra	Denbora	30´

5.3.11. JARDUERA: Hotsen jolasa

Azalpena			
<p>1. Irakasleak aldez aurretik koloretako paperetan 1-25 arteko zenbakiak idatziko ditu, paper bakoitzean zenbaki bana. Ondoren, gizaki jokoak sortuko dugunez, jolasaren oinarria izango den maparen ereduak egokitu eta inprimatuko du (Ikus 1. eranskina). Eskolako patio inguruko erreferentziak mapan islatuz (gela zenbaki-segiden eskuinaldean, jantokia irteeraren alboan...)</p> <p>2. Umeei mapa eta koloretako paperak eskaini, eta hauek espazioan kokatu beharko dituzte, betiere irakaslearen laguntzaz.</p> <p>3. Hiru talde osatuko ditu irakasleak (zotz formularen bidez). Hauek txandaka dadoa bota eta ibilbidean zehar <i>hotsen jolasean</i> aurrera egingo dute; dadoan ateratzen den zenbakia, pausu kopuru adina adieraziz.</p> <p>4. Koloretako laukietan sartzen direnean, irakasleak dagokion proba irakurri eta taldeak egin beharko du.</p>			
Helburuak		Gaitasunak	
<ul style="list-style-type: none"> • Elkarlana eta lankidetzaren sustatzea. • Oroimena lantzea. • Komunikazioa areagotzea. • Norbanakoak ikasi duenaz ohartzea. • Ikasten disfrutatzea. 		<ul style="list-style-type: none"> • Hizkuntza- eta literatura-komunikazioa. • Matematikoa. • Sozial eta zibikoa. • Arterakoa. • Motorra. 	
Materiala			
<ul style="list-style-type: none"> • Patioko mapa ereduak (zenbaki-segiden kokapenarekin). • Koloretako paperak (zenbakiekin). • Paperak eta margoak. • Dadoa. 			
Lekua	Patioa	Denbora	40´

6. BALIZKO APLIKAZIOA: AZKEN GOGOETAK

Poesiak irudimena etengabe elikatzeaz gain, hizkuntza bermatzen eta gaitasunak garatzen laguntzen du, eta halaber, nortasuna eraikitzen (Bilbao, 2018). Hortaz, poesia umeei denbora tarte mugatuan eskaini ordez, haien bizitzan zehar presente egon beharko litzateke; Haur Hezkuntzatik hasita, zahartzarora arte (López Gaseni, 2020).

Nolanahi ere, proposamena eskoletan aurrera eraman ahal izateko, bitartekariok poesiak duen garrantzian sinetsi beharra dugu (Igerabide, 2003a). Hala bada, lanean ari diren irakasleentzat proposamena baliagarria izango zaie. Alabaina, poesia Haur Hezkuntzan egotearen garrantzia ulertu ezean, erresistentzia egon liteke bai proposamena gelara eramateko, bai egunerokotasunean haren presentzia mantentzeko. Halaber, ludikotasuna baztertzeko arriskua egon liteke; poesia hizkuntzarekin jolasteko, ikasteko, ahozketasuna eta oroimena lantzeko eta ondo pasatzeko bitartekari egokiena dela kontuan izan gabe. Horrez gain, umeei hezitzaileen ilusiotik elikatzen direnez gero, poesiarekiko jakingura baldintzatu dezakegu transmisioan, hau murriztuz.

Bestalde, proposamena egin aurretik, poesiari buruzko gutxieneko ezagutza izatea ezinbestekoa da; jardueretan egokitzapenak egin behar izatekotan, hauek egiteko gaitasuna izan dezagun. Kontuan hartu beharra dago umeei haien artean desberdinak diren bezala, taldeak ere desberdinak direla. Hori dela eta, irakasleak jarduerak bideratzen dituen izatea garrantzizkoa da; umeei harreman estuena duen pertsona izateaz gain, inork ez ditu berak bezala ezagutzen. Alde horretatik, konfiantza giroa sortuko dela ziurtatu dezakegu.

Poesia, funtsean, komunikazioa denez, umeen eta irakaslearen arteko komunikazioa biziagotu dadin, umeen galderak erantzuteaz gain, jarduerak egin aurretik, bitartean eta bukatu ondoren azalduko dira (Assunção, 2006). Era honetan, umeei ikaskuntza esanguratsua izan dezaten ahalbidetuko dugu.

7. GRALAREN BALORAZIO PERTSONALA

Dokumentu honetan garatutako GrAL hau egun arte burutu izan dudana lan akademikorik sakonena izan da, eduki eta luzera aldetik. Bizitzaren alor desberdinetan bezala, norbanakoak haren gaitasunak gailentzen eta garatzen saiatu behar da. Ildo horretatik, aldamiaje lana ezinbestekoa izan da ikaskuntza eraginkorra izan dakidan (Larraza, 2018); aldeztu aurretik nituen ezagutzei leku egiteko eta gaiarekin uztartzeko; ahalik eta lan osatuena sortzeko asmotan. Eta, HHko gradua bukatutakoan ere, etengabeko ikaskuntzaren bidetik jarraituko dudalakoan nago. Profesionalki zein pertsonalki.

Haur Poesiaren gaia hautatu nuen momentuan, nahiz eta prozesu zaila izan, banekien asegarria izango zela. Nire zuzendariak, Edu Zelaietak, prozesuaren hasieran helarazi bezala, lanari ekiteko gogoia eta konpromisoa premiazkoak dira. Ideia horren haritik, gaiarekiko etengabeko ilusioa izateak lana garatzerakoan jarrera iraunkorra mantentzen lagundu nau. Bestalde, helburuen atalean ezarritako xedeak bete direla esan genezake. Alor pertsonalari dagokionez, GrALaren bidez ikasi eta disfrutatu dut.

Alor akademikoari oratu, dokumentuan Haur Poesiaren presentziaren garrantzia azalatu delakoan nago. Baita proposamen baliagarria sortu ere. Alde horretatik, etorkizunean aukera eskaintzen badidate, aurrera eramango dudana proposamena izango da hau, zalantzarik gabe. Horrez gain, euskal poesiak gizartean duen lekua handiagoa izatea gustatuko litzaidake, poesia baita gure herriaren ezagutzarik baliotsuenetako bat (Lertxundi, 2003).

Bukatu baino lehen, prozesuan zehar lagundu nauten pertsonei bihotzez eskerrak eman nahiko nizkieke. Bereziki, Edu Zelaietari, eskaintako aholku, argibide, laguntza etengabe eta partekatutako ezagutzagatik. Ezin ahaztu Haur Hezkuntzako graduan izandako irakasleak eta euskal Haur Poesian aritu diren egileak. Baita lagunak eta familia ere, beraiek ohartu ez arren, niretzako ezinbestekoak izan dira.

8. ERREFERENTZIAK

- Adricáin, S. eta Orlando, A. (2016). *Escuela y poesía. ¿Y qué hago con el poema?*. Gaztela Mantxako Unibertsitatea. Honako webgune honetatik berreskuratuta: <https://books.google.es/books?hl=es&lr=&id=L7h5DAAAQBAJ&oi=fnd&pg=PA7&dq=poes%C3%ADa+infantil&ots=Yi7kd3CIOT&sig=90BrijvZ6BliTyN2Gr1O2LzjONjQ#v=onepage&q&f=false>
- Anton, K. (2004). *Armiarma zuhaitzean*. Bilbo: Aizkorri.
- Añorga, P. (2006). *Zuni*. Bilbo: Aizkorri.
- Añorga, P. (2009). Pello Añorga. Euskadi Saria jaso zuenean eman zuen hitzaldia. *Behinola: haur eta gazte literatura aldizkaria*, (19), 15-18. orr. Honako webgune honetatik berreskuratuta: <https://www.galtzagorri.eus//behinola/dokumentuak/hitzontzi-6.pdf>
- Añorga, P. (2011). Haur-Literatura eta ahozketasuna. *Behinola: haur eta gazte literatura aldizkaria*, (24), 21-28. orr. Honako webgune honetatik berreskuratuta: <https://www.galtzagorri.eus//behinola/dokumentuak/hizpide-10.pdf>
- Arnal, T. (2019). *Hizkuntzaren eta Literaturaren Didaktikaren ikasgaia*. 2018-19 ikasturteko Haur Hezkuntza Gradu 3.mailako apunteak. (Argitaragabeko materiala). Gasteiz: Hezkuntza eta Kirol Fakultatea.
- Arroitajauregi, J. (2012). *Euskal Antologiak Saila*. Donostia: Etxepare Euskal Institutua.
- Astiz, I. eta Mutuberria, M. (2019). *Joemak eta polasak*. Donostia: Elkar.
- Assunção Reis, D. (2006). *Poesía para niños: ¿por qué?, ¿qué? y ¿cómo?*. Instituto Cervantes de Brasilia. Honako webgune honetatik berreskuratuta: https://cvc.cervantes.es/ensenanza/biblioteca_ele/publicaciones_centros/PDF/brasil_2012/26_reis.pdf
- Bilbao, L. eta Mutuberria, M. (2016). *Xomorropoemak eta beste piztia batzuk*. 1. Edizioa. Arre (Nafarroa): Pamiela.
- Bilbao, L. (2018). Leire Bilbao: "Poesía da nire genero naturala"/ Itziar Ugarte elkarriketazailerak. *111 Akademia aldizkaria*. Honako webgune honetatik berreskuratuta: <https://www.111akademia.eus/albisteak/2018/02/05/leire-bilbao-poesia-da-nire-genero-naturala/>
- Cabello Salguero, M. (2011). Aprender jugando en educación infantil. *Pedagogía Magna*. (11), 164-170. orr. Honako webgune honetatik berreskuratuta: <https://dialnet.unirioja.es/descarga/articulo/3629174.pdf>
- Chamorro, I. L. (2010). El juego en la educación infantil y primaria. *Autodidacta*, 1(3), 19-37.orr. Honako webgune honetatik berreskuratuta: <http://educacioninicial.mx/wp-content/uploads/2017/11/JuegoEIP.pdf>
- Colomer, T. (2005). El desenlace de los cuentos como ejemplo de las funciones de la literatura infantil y juvenil. *Sociedad Lectora y educación*, 203.
- EAEko Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura saila (2016). 237/2015 Dekretua. Haur Hezkuntzako Curriculuma. EHAA, 9 zk., 2016ko urtarrilaren 15a. Euskaraz. Honako webgune honetatik berreskuratuta: <https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2016/01/1600142e.pdf>
- Etxaniz Erle, X. (1995). *Igarkizunak*. Donostia: Elkar

- Etxaniz Erle, X. (1997). *Haur eta gazte literatura: kontzeptuaren definizio baten bila*. Pamiela.
- Etxaniz Erle, X. (2005). Gure arteko haur eta gazte literatura. *Tantak*, 33. 89-101. orr. Honako webgune honetatik berreskuratuta: <https://www.ehu.eus/ojs/index.php/Tantak/article/view/3234/4158>
- Etxaniz Erle, X. (2009). *Puntan punta bat (Haur folkloreaken bilduma)*. Iruña: Pamiela
- Etxaniz Erle, X. (2011). Euskal Literaturaren historia; begirada berriaz. *Euskaltzaindiaren lan eta agiriak*. Bilbo. Liburukia, 55 (2). 823-839. orr. Honako webgune honetatik berreskuratuta: <http://www.euskaltzaindia.net/dok/euskera/75384.pdf>
- Etxaniz Erle, X. (2020). *Gaur Egungo Haur eta Gazte Literaturaren ikasgaia*. 2019-2020 ikasturteko Haur Hezkuntza Gradu 4.mailako apunteak. (Argitaragabeko materiala). Gasteiz: Hezkuntza eta Kirol Fakultatea.
- Etxaniz Erle, X. eta López Gaseni, M. (2009). Euskal haur poesia milurteberrian. *Behinola: haur eta gazte literatura aldizkaria*, (20), 25-36. orr. Honako webgune honetatik berreskuratuta: <https://www.galtzagorri.eus/behinola/dokumentuak/hizpide-11.pdf>
- Etxebarria Zamalloa, I. (2020). *Euskal Ahozko Literatura*. Auñamendi Entziklopedia. Honako webgune honetatik berreskuratuta: <http://aunamendi.eusko-ikaskuntza.eus/eu/euskal-ahozko-literatura/ar-153850/>
- Etxebarria, I., eta Kalzakorta, J. (2009). *Herri literatura*. Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia. Honako webgune honetatik berreskuratuta: https://www.euskadi.eus/contenidos/informacion/eu_mintzagai_bilduma_aurkezp/en/eu_aurkezp/adjuntos/05-Herri_Lit.pdf
- Ferreira López, N. (2013). *Ahozko literatura Haur Hezkuntzako ikasleen euskarazko mintzarena hobetzeko baliabidetzat*. (Gradu Amaierako Lana). Honako webgune honetatik berreskuratuta: <https://academica-e.unavarra.es/xmlui/bitstream/handle/2454/8026/Nelida%20Ferreira%20Lopez.%20GBL.%202013.pdf?sequence=1&isAllowed=y>
- Galtzagorri elkarte. Honako webgune honetatik berreskuratuta: <https://www.galtzagorri.eus/eu/klis-klasikoak/liburu-bilduma>
- Galtzagorri elkarte. (2020). Egitasmoak: haurrak. Honako webgune honetatik berreskuratuta: <https://www.galtzagorri.eus/eu/egitasmoak>
- García Teijeiro, A. (2003). Haurrek gustuko dute poesia, ala ez?. *Behinola: haur eta gazte literatura aldizkaria*, (8), 31-39. orr. Honako webgune honetatik berreskuratuta: <https://www.galtzagorri.eus/behinola/dokumentuak/083.pdf>
- Heriz Kortabarría, M. (2017). *Sekretuen haitzuloan: Haur Poesiaren Fantasia murgiltzeko proposamena*. (Gradu Amaierako Lana). Euskal Herriko Unibertsitatea, Gasteiz.
- Igerabide, J. K. (1994a). *Egun osorako poemak*. Pamiela
- Igerabide, J. K. (1994b). Haur Literaturaz. *Hegats*, (9). 9-19. orr. Honako webgune honetatik berreskuratuta: <http://www.idazleak.eus/fixategiak/dokumentuak/aldizkariak/094.pdf>
- Igerabide, J. K. (1997). *Haur korapiloak*. Pamiela

- Igerabide, J. K. (2003a). Haur poesia eta ahozko tradizioa. *Sancho el Sabio*, 18, 39-50.orr. Honako webgune honetatik berreskuratuta: <https://dialnet.unirioja.es/descarga/articulo/637397.pdf>
- Igerabide, J. K. (2003b). Haur poesiaz gogoeta zenbait. *Behinola: haur eta gazte literatura aldizkaria*, (8), 64-73.orr. Honako webgune honetatik berreskuratuta: <https://www.galtzagorri.eus//behinola/dokumentuak/083.pdf>
- Igerabide, J. K. (2005). *Gorputz osorako poemak*. 1. Edizioa. Bilbo: Aizkorri.
- Igerabide, J. K. (2009). Haur poesiaren aitzindariak. *Behinola: haur eta gazte literatura aldizkaria*, (20), 37-42. orr. Honako webgune honetatik berreskuratuta: <https://www.galtzagorri.eus/behinola/dokumentuak/hizpide-11.pdf>
- Igerabide, J. K. (2011). Bularretik mintzora: ahozotasuna eta eskola. *Behinola: haur eta gazte literatura aldizkaria*, (24), 55-60. orr. Honako webgune honetatik berreskuratuta: <https://www.galtzagorri.eus//behinola/dokumentuak/hitzatzea-9.pdf>
- Igerabide, J. K. (2017). Belarriak biguntzeko. *Behinola: haur eta gazte literatura aldizkaria*, (35), 38-40. orr. Honako webgune orrialde honetatik berreskuratuta: <https://es.calameo.com/read/0055098776f6db958a050>
- Larraza, S. (2018). *Haur Hezkuntzako Hizkuntzaren Didaktikaren Oinarriak Testuinguru Eleanitzetaren ikasgaia*. 2017-2018 ikasturteko Haur Hezkuntza Gradu 2. mailako apunteak. (Argitaragabeko materiala). Gasteiz: Hezkuntza eta Kirol Fakultatea.
- Lertxundi, A. (2003). Hotsen gorazarre. *Behinola: haur eta gazte literatura aldizkaria*, (8), 19-28.orr. Honako webgune honetatik berreskuratuta: <https://www.galtzagorri.eus//behinola/dokumentuak/083.pdf>
- Literatur Terminoen Hiztegia. (2020). Euskaltzaindia. Webgune honetatik berreskuratuta: https://www.euskaltzaindia.eus/index.php?search=literatura&bila=bai&option=com_xslt&lang=eu&layout=lth_detail&view=frontpage&Itemid=474
- López Gaseni, M. (2000). Euskaratutako Haur eta Gazte Literaturaren azterketa: funtzioak, eraginak eta itzulpen-estrategiak. *Senez: itzulpen aldizkaria*, (22), Honako webgune honetatik berreskuratuta: <https://eizie.eus/eu/argitalpenak/senez/20001001/gaseni>
- López Gaseni, M. (2020). *Literatur Tailerren ikasgaia*. 2019-2020 ikasturteko Haur Hezkuntza Gradu 4.mailako apunteak. (Argitaragabeko materiala). Gasteiz: Hezkuntza eta Kirol Fakultatea.
- López, A., Jerez, I., eta Encabo, E. (2010a). *Aproximación a la poesía infantil*. Grupo de Investigación Didáctica de la lengua y la Literatura. Murtzia: Murtziako Unibertsitatea.
- López, A., Jerez, I., eta Encabo, E. (2010b). *La poesía en Educación Infantil*. Grupo de Investigación Didáctica de la lengua y la Literatura. Murtzia: Murtziako Unibertsitatea.

- Lur hiztegi entziklopedikoa. (2020). Honako webgune honetatik berreskuratuta:
https://www.euskara.euskadi.eus/r59lurcontd/es/contenidos/termino/_c03872/e_u_l_2152/2152.html
- Olaso, X. (2007). *Pupuan trapua*. Madril: Atenea.
- Paya, X. (2013). Antología de Literatura Oral Vasca. *Ahozko Euskal Literatura*. 17-23. orr.
- Pelegrín, A. (1993). Juegos y poesía tradicional infantil. *Revista interuniversitaria de formación del profesorado*, (18), 43-51. orr.
- Pelegrín, A. (2003). Poesía eta poetika haurrentzat: tradizioa eta modernitatea. *Behinola: haur eta gazte literatura aldizkaria*, (8), 47-63.orr. Honako webgune honetatik berreskuratuta:
<https://www.galtzagorri.eus//behinola/dokumentuak/083.pdf>
- Ruiz, R. (2007). *Sekretuak belarrira*. Bilbo: Aizkorri.
- Rodríguez-Miñambres, P., Itziar Otegi, I. eta Etxaniz, X. (2019). Idazlan klasikoak eta eskola. *Tantak*, 31(1). Honako webgune honetatik berreskuratuta:
<https://dialnet.unirioja.es/servlet/articulo?codigo=7119837>
- Urkiza, A. (2006). Nire hiriko poemak. Iruñea: Pamiela
- VV.AA. (2003). *Zaldiko-maldikoan*. Bilbo: Aizkorri.

ERANSKINAK

1. ERANSKINA: Jardueren materialak

Zotz egiteko formulak

Atxa-mitxa zilarra
 joan joan oilarra
 ardi beltza bilara
 o pitxon, biribiton
 txin, txan, txon

Bat: Matxin Tarrat
 Bi: MitxelEperdi
 Hiru: kolko bete diru
 Lau: ikomelau!
 Bost kokkotean koxt!
 Sei: korta bete behi
 Zazpi: burua bete bazpi
 Zortzi: katilua bete zorri
 Bederatzi: katuaren narrua erantzi
 Hamar: mar-mar.

2. Jarduera:
 Hotsak
 dramatizatzen

Hanakak

Hanka azpian ilargia:
 Gorantz egiten du argia
 Eta hegaldi larria
 Nire zapatiletan gora
 Korapiloetan zora-zora
 Zeru goiaren altzora.

Garuna

Izar lotsati-lotsatien
 Gorritasunetik jaiotzen dira
 Pentsakizunak eta ametsak,
 Eta horiek marruskatzen ditu garunak.

Gauaren kristalaren ispiluan
 Bere buruari begira dago ontza
 Eta haren irribarrea burmuinean
 Barru-barrura sartzen zait.
 (...)

Eskumuturrak

- Eskumutur: nora zoaz?
- Urrunera, urruneraino,
Eskuaren itsasoraino.
- Eskumutur: nondik zatoz?
- Urrunetik, oso urrunetik,
Besoaren ibai luzetik.
- Eskumutur: zer nahi duzu?
- Ibaian gora igeri ekin
- edo itsasi gazian lo egin.

Belaunak

Belaunetan dauzkat
 Kikara bi,
 Nire hankek har dezaten
 Esne eta ogi.

Belaunetan beldurra
 Sartzen zaidanetan,
 Isiltasunaren musikak
 Jartzen ditu dardaretan.
 (...)

3. Jarduera:
Hotsekin saltoka

Salto saltoka
Nabil ni gustura
Salto (e)ta salto
Bat sartu arte

Eman (e)zazu buelta
(e)ta irten zaitez.

Sartu dadila....
(e)ta biok elkarrekin ibiliko gara
Bat irten arte.

4. Jarduera:
Puskatutako
hotsak

- Azaroa hotz, negua motz.
- Zer ikusi, hura ikasi.
- Neguko eguna, argitu orduko iluna.
- Hara bi: zu bat eta beste ni.
- Txapela buruan eta ibili munduan-.
- Su gaberik ez da kerik.

- Egin eta egin eta irabazi ezin.
- Geroa, alferraren leloa.
- Ibiltari gauean, logura goizean.
- Lan lasterra lan alferra.
- Mika nolako, umea halako.

5. Jarduera:
Etzandako
hotsak

Lokartu aurreko poema

- Tok-tok
- Nor da?
- Ilargia.
- Zertara zatoz?
- Gauari argia ematera.
- Tok-tok
- Nor da?
- Izara.
- Zertara zatoz?
- Zu gozo estaltzera.

- Tok-tok
- Nor da?
- Loa.
- Zertara zatoz?
- Zuri betileak biltzera.
- Tok-tok
- Nor da?
- Gabon-musua.
- Zertara zatoz?
- Masailean pausatzera.

- Tok-tok.
- Nor da?
- Ametsa.
- Zertara zatoz?
- Zurekin geratzera!.

6. Jarduera:
Hotsen
pictionary-a

Zer dela eta zer dela
zerutik bota eta hausten ez dena
uretara bota eta puskatzen dena?
(Erantzuna: papera)

Milaka anai ditut
ni bezain hori,
bizia ematen diogu
erein gaituenari.
(Erantzuna: garia)

Ahorik ez eta txistuka
hankarik ez eta korrika
aurpegian aritzen zaizu joka
baina zuk ezin ikusi inola.
(Erantzuna: haizea)

Barrua horia
kanpoan horia
eta bihotza
erdi-erdian.
(Erantzuna: arana)

7. Jarduera:

Hotsen
adierazpena

Deskubrimendua

Esploratzaile bat
aurrera eta zuzen
abiatu zen etxetik,

beti aurrera
eta beti zuzen
beti bide zuzenetik,

eta hainbeste ibili zen
etxera heldu zela
baina atzeko atetik.

Karakola

Karakola bat ekarri didate
itsasotik
olatuak entzuten dira barrutik.

Belarri batera hurbildu dut
horregatik,
eta arrain gorri bat atera zait
besterik?

8. Jarduera:

Kiku, kaikua
hotsen ordua

Kiku, kiku, kaikua,
lotan dago katua.
Kiku, kiku, lapurra,
lotan dago txakurra.
Kiku, kiku, ilargi:
lo daudenen zaindari.

9. Jarduera:

Hotsen
puzlea

OINETAN LOKARRI

(Eta bihotzean korapilo)

Oinetakoak lotu eta askatu
aritu da haur bakartia
arratsalde osoan, isilik.

Zaintzen duen neskak
irribarre egin dio, harriturik.

Atea jo dute; nor ote?
Haurrak bere lanari utzi dio.

Atean amaren aurpegia agertu da.
Haurrak lanari ekin dio berriro;

Oraingoan, bihotzeko
korapiloa askatu du.

AZOKARA

(Tristuraren korapiloak askatzeko)

Azokara, azokara:
erosiko dut itsas usaina
eta belardien mingaina.

Azokara, azokara:
erosiko dut ilargiaren zotina
eta izarren kriskitina.

Azokara, azokara:
erosiko dut errekaen antosina
eta mendiaren lepo fi na. eta
mendiaren lepo fi na.

Azokara, azokara.

10. Jarduera: onomatopeiekin jolasten



dan-dan
(danborra)



taup-taup
(bihotza)



mauka-
mauka (jan)



klix-klax
(guraizeak)



firi-fara
(haize leuna)



txin-txin
(dirua)



plisti-plasta
(urtean ibili)



po-po
(autoa)

11. Jarduera: Hotsen jolasa

2 LAUKIA

Zer izango litzateke ... ordez?

- A. Txoria
- B. Katua
- C. Eguzkia

4 LAUKIA

Oraingoan, irakurriko dizuedan olerkian entzun beharko duzue ondoren dramatizatzeke... prest?

- A. (2. jardueran erabilitako *hankak* olerkia)
- B. (2. jarduerako *eskumuturrak* olerkia)
- C. (2. Jarduerako *belaunak* olerkia)

8 LAUKIA

Gogoratzen zarete sokasaltoan ibili ginenean zer egin eta zer abestu genuen? Lagunduko nauzue abesten? (bitartean dagokion taldeak sokasaltoan bezala aritu behar da)

11 LAUKIA

Talde honetako partaideok, jar zaitetzte ilaran, puskatutako hotsen momentua da eta!

- A. Geroa, alferraren leloa
- B. Ibiltari gauean, logura goizean
- D. Lan lasterra lan alferra

13 LAUKIA

Erlaxazio denbora! Jar zaitezte guztiok bikoteka edo hirukoteka, zutik, nik irakurri bitartean masaje/kilimak egiteko.

(Jarduera honetan 5. jardueran erabilitako lo-kanta berdina erabiliko dugu. Talde bat lauki honetan jauzi arren, ume guztiek batera egingo dute jarduera)

18 LAUKIA

Prest zaudete belarriekin entzuteko eta bihotzarekin marrazteko? (irakasleak 8 ariketan erabilitako olerkia irakurri ez ezik, marrazkia modu zehatz batean egiteko eskatuko die)

- A. Lerro zuzenak erabiltzea
- B. Marrazkia borobilez osatuta egotea
- D. Marrazkia karratuz osatuta egotea

23 LAUKIA

Talde honetako partaideok... hurbildu zaitezte niregana banan banan, hotsen puzzlea egingo dugu!

(10.jardueran bezala, 5 bizitza izango dituzte irakasleak jatorrizko testua irakurtzeko)

15 LAUKIA

Adostu zein taldekide izango den asmakizuna irudikatuko duena, eta niregana etor dadila...

A. Zer dela eta zer dela, zerutik bota eta hausten ez dena, uretara bota eta puskatzen dena? (erantzuna: papera).

B. Barrua horia, kanpoan horia eta bihotza erdi-erdian (erantzuna: arana).

D. Ahorik ez eta txistuka, hankarik ez eta korrika, aurpegian aritzen zaizu joka baina zuk ezin ikusi inola (erantzuna: haizea).

21 LAUKIA

Kiku, kiku.... Gogoratzen duzue? (Lauki honetan jauzten den talde ordenaren arabera, hurrengo gorputz-adierazpenak erabili beharko ditu:)

- A. Eskuak eta belaunak
- B. Belaunak eta oinak
- D. Eskuak eta hatzak

25 LAUKIA

Zein da irudi honi dagokion onomatopeia eta keinua?

- A. Danborraren irudia
- B. Janariaren irudia
- D. Guraizeen irudia

	22	21	20	19	18	
	23				17	GELA
	24				16	
HELMUGA	25				15	
					14	
	9	10	11	12	13	
	8					
	7					
	6					
	5	4	3	2	1	IRTEERA



JANTOKIA

2. ERANSKINA: Hilabeteko programazioa

MAIATZA					
Aste bakoitzeko pasahitza	Astelehena	Asteartea	Asteazkena	Osteguna	Ostirala
Su gabarik ez da kerik	4 1. <u>Jarduera</u> : Zer izango litzateke?	5	6 2. <u>Jarduera</u> : Hotsak dramatizatzen	7 Olerkia entzutea (a)	8 3. <u>Jarduera</u> : Hotsekin saltoka
Zer ikusi, hura ikasi	11 4. <u>Jarduera</u> : Puskatutako hotsak	12	13 5. <u>Jarduera</u> : Etzandako hotsak	14 Olerkia entzuea (b)	15 6. <u>Jarduera</u> : Hotsen <i>pictionary-a</i>
Hara bi: zu bat eta beste ni	18 7. <u>Jarduera</u> : Hotsen adierazpena	19	20 8. <u>Jarduera</u> : Kiku, kaikua hotsen ordua	21 Olerkia entzutea (d)	22 9. <u>Jarduera</u> : Hotsen puzzlea
Txapela buruan eta ibili munduan	25 10. <u>Jarduera</u> : Onomatopeiekin jolasten	26	27 11. <u>Jarduera</u> : Hotsen jolasa	28 Olerkia entzutea (e)	29

ENTZUNGO DIREN OLERKIAK	
A	<p> KALATXORIAK Kalatxoriak begira-begira neuzkan zure marrazkia hondartzan egin nuenean. Olatua etorri eta joan. Kalatxoriak musuzapi zuriak harkaitzetan. <i>Zaldiko-maldikoan (2003)</i> </p> <p> NEKATU Ehizan dabil katua eta ihesi kakatua eta batak beti korri eta bestea beti hegan azkenean nekatua da katua eta nekakatu kakatua. <i>Astiz. Joemak eta polasak (2019)</i> </p>

B	<p>UNIBERTSOA</p> <p>Unibertsoan dago lurra eta lurrean itsasoa eta itsasoa ni eta zu eta bertsoa gure unibertsoa.</p> <p>Añorga. <i>Zuni</i> (2006)</p>	<p>Ilbetea, ilbetea saguek nahi dute ilargia jatea.</p> <p>Ilgora, ilgora sagu koadrila doa zeruko hormetan gora.</p>	<p>Ilbehera, ilbehera oso-osorik jatea posible ote da?</p> <p>Ilberria, ilberria biribil biribila saguen gerria.</p> <p>Bilbao, <i>Xomorropoemak eta beste piztia batzuk</i> (2016)</p>
D	<p>MUSUA</p> <p>Maite zaitut, aizu, ez izan izu: hostoak lurrari musu.</p> <p>Ruiz. <i>Sekretuak belarrira</i> (2007)</p>	<p>ANIMALIEN MATXINADA</p> <p>Astoak arrantza, zaldiak irrintzi, baserritar koitaduak prakak ditu jantzi.</p> <p>Oilarrak kukurruku, zakurrak zaunka, ikuilura joan da oin biak arinka.</p>	<p>Ardiak balaka, ahuntzak bekereke, animalia guztiak ikuiluan jo eta ke.</p> <p>Txitoak txio-txio, oiloak kakaraka, baserritar koitaduak praketan kaka.</p> <p>Olaso. <i>Pupuan trapua</i> (2004)</p>
E	<p>FAROLA</p> <p>Gauaren pisuari men farola burumakurrak.</p> <p>Urkiza. <i>Nire hiriko poemak</i> (2006)</p>	<p>ILARGIA</p> <p>Bart arratsean leihotik sartu zait ilargia eta bertatik bertara ikusi diot aurpegia</p> <p>Alde bat iluna bestea argia eta begirada gardena eta argia</p> <p>Orain gauero igo nahi dut ilargira handik jartzeko lurrari begira lurrera handik handik lurrera egunsentiko eguzki irriparekin batera</p>	<p>Ilargitik zintzilik zarramiloan zirrin-zarran zirrin-zarran nahi dut ibili zahartzaroari begiratu eta haurtzaroa ikusi</p> <p>Ilargian zankoloka nahi dut mundua zeharkatu</p> <p>Ametsetan ari naizela amestu.</p> <p>Kazabon. <i>Armiarma zuhaitzean</i> (2004)</p>

3. ERANSKINA: Umeen garapen behaketa taula

IKASLEAREN IZENA:

DATA:

1: Lortu du

2: Lortzeko bidean dago

3: Lortu behar du

NORTASUNAREN ERAIKUNTZA	1	2	3
Gogoz parte hartzen du.			
Arauk betetzen ditu.			
Bere ekintza-ahalmenean konfiantza du.			
Egoerak eta pertsonaiak antzezteko gai da.			
HITZEZKO KOMUNIKAZIOA	1	2	3
Ahozko testuak ulertzen ditu.			
Ahozko hizkuntza erabiltzen du komunikatzeko.			
Egokitasunez erabiltzen du lexikoa.			
Egokitasunez ahoskatzen du.			
GORPUTZ HIZKUNTZA	1	2	3
Gorputza erabiltzen du komunikatzeko.			
Mugimenduak koordinatzen ditu.			
MATEMATIKA HIZKUNTZA	1	2	3
Espazio kokapena azaltzeko gai da.			
Zenbaki ordinalak erabiltzen ditu.			
ARTE-KOMUNIKAZIO BESTE MODUAK	1	2	3
Arte-adierazpenak baliatuz komunikatzeko gai da.			
Folklorearekiko interesa du.			

Iturria: egileak Heziberri 2020 izenekoak oinarrituta moldatua

4. ERANSKINA: Proposamenaren ebaluazio orokorra

IZENA: POESIA GOZATU eta MUNDUA DASTATU

DATA:

1: Lortu da

2: Lortu behar da

	1	2
Poesia eta jolasa modu egokian uztartu dira.		
Jarduerak umeen arreta erakartzea lortu dute.		
Jarduerak dinamikoak izan dira.		
Oroimena hobetzeko bidea urratu da.		
Ahozkotasuna landu da alderdi ludikoa gailenduz.		
Umeek belarriaren irakurketa garatu dute.		
Umeen interesa poesiarekiko handitu da.		
Proposamenean zehar umeek ikasi, gozatu eta gogotsu parte hartu dute.		
Poesia egunerokotasunean presente egoteko zertzeladak baliagarriak izan dira.		
Hotsekin jolastearen garrantzia transmititu izan da.		
HOBETZEKO PROPOSAMENAK:		
.....		
.....		
.....		
.....		
.....		
.....		

Iturria: egileak Heziberri 2020 izenekoak oinarrituta moldatua

5. ERANSKINA: Proposamenaren ikuspegi kurrikularra (Iturria: Heziberri 2020)

KONPETENTZIAK	
Konpetentzia orokorrak	Hitzezko eta hitzik gabeko komunikaziorako eta komunikazio digitalerako konpetentzia.
	Norbera izaten ikasteko konpetentzia.
Konpetentzia espezifikoak	Hizkuntza- eta literatura-komunikaziorako konpetentzia.
	Matematikarako konpetentzia.
	Teknologiarako konpetentzia.
	Konpetentzia sozial eta zibikoa.
	Arterako konpetentzia.
	Konpetentzia motorra.

1.- EREMUA: Nortasunaren eraikuntzaren eta ingurune fisiko eta sozialaren ezaguera		Jarduerak	
Etapako helburuak	Gorputza kontrolatzeko bidea urratzea.	1- 3, 8, 10, 11	
	Ongizate emozionalari eta fisikoari dagozkion jarrerak lantzea.	2- 5, 7, 8, 10, 11	
	Ekimenak abiatzea eta norberaren ekintzak planifikatzea eta egituratzea.	2, 9, 11	
	Errespetu, laguntza eta lankidetzako jarrerak eta ohiturak lantzea.	1, 2, 11	
	Gailu teknologikoak erabiltzen hastea eta haien komunikazio-ahalmena balioestea.	6	
Edukiak	1. multzoa: Nortasuna eraikitzea	Zentzumenak gorputza eta kanpo-errealitatea arakatzeko erabiltzea eta zer sentazio eta pertzepzio izaten dituen ezagutzea.	5
		Jolasaren bidez ingurunea arakatzeko disfrutatzen eta harremanak izateko.	2, 3, 11
		Jolas sinbolikoaren bidez, egoerak eta pertsonaiak	3

	antzeztea.	
	Jolas-arauak ulertzea eta onartzea.	1, 3, 4, 8-11
	Konfiantza izatea norberaren ekintza-ahalmenean eta jolasetan parte hartzea eta saiatzea.	1, 2, 4, 6, 7, 8, 9, 10, 11

		Jarduerak
Eduki komunak	Informazioa ulertzea, konparatzea, sailkatzea, sekuentziaztea eta aztertzea.	2 aztertzea, 9 sekuentziaztea
	Ideiak sortu eta adieraztea.	1, 2, 7, 11
	Zereginak eta proiektuak planifikatzea eta aztertzea.	2, 11
	Plangintzan erabakitakoa betetzea edo, beharrezkoa baldin bada, doitzea.	2, 11
	Pertsonen arteko harremanak eta komunikazioa lantzea (enpatia eta asertibitatea).	1, 2, 4, 5, 7, 9, 11
	Elkarlana eta lankidetzat taldean ikasteko zereginetan.	2- 4, 9, 11

2- EREMUA: Nortasunaren eraikuntzaren eta komunikazioaren eta adierazpena		Jarduerak
Etapako helburuak	Emozio eta sentimenduak ezagutzea, horiez jabetzea eta adierazten ikastea.	5, 7, 11
	Ahozko hizkuntza erabiltzean balioestea.	1- 3, 5, 7, 11
	Askotariko testuingurutan erabiltzea matematika-adierazpenak.	9, 11
	Arte-produkzioetan parte hartzea, komunikazio-aukerak arakatu eta kultura bera ulertzen hasteko.	1, 2, 6- 8, 11

Edukiak	1. multzoa: Hitzezko komunikazioa	Ahoz adierazitako testu errazak ulertzea.	2-11
		Informazio, emozio eta gogoak hitzez adierazi eta azaltzea.	1, 5, 7, 11
		Ahozko adierazpenetan, egokitasunez erabiltzea lexikoa, sintaxi-egiturak, intonazioa, keinuak eta ahoskatzea.	4-11
		Elkarrizketetan estrategiak erabiltzea, parte hartzea eta arretaz entzutea.	1, 5-7, 10, 11
		Sormena adieraztea hizkuntzaren ahozko erabilera egiten duten jolasetan, ondo pasatu eta ikasteko.	1, 6, 7, 11
		Literatura-testu errazak, entzutea, ulertzea eta erreztatzea, plazera sentitzeko eta ikasteko.	2-11
		Literatura-testu errazak dramatizatzen parte hartzea.	2
	2. M.: Gorputz-hizkuntza	Gorputza eta mugimenduak egokitzea, adierazpenak egin edo komunikatzeko asmoarekin, pertsonen, espazioen, denboraren eta objektuen ezaugarrien arabera.	2, 5, 8, 10, 11
		Dantzetan eta gorputz-adierazpen jolas-jardueretan parte hartzea.	1- 3, 8, 10, 11
	3. M.: Matem. hizkuntza	Besteen adierazpen eta azalpenekiko interesa eta begirunea izatea.	1, 2, 5, 7, 11
		Elementuak mailaz maila antolatzea. Testuingurutan erabiltzea zenbaki ordinalak.	9
		Norberak eta objektuek espazioan duten kokapena.	11
		Arte-adierazpenak baliatuz zerbait adieraztea eta komunikatzea.	7, 11
		Soinu eta erritmo errazak sortzea melodiak edo beste elementu batzuk interpretatzeko.	8, 10, 11
	4 M.: Arte-kom. beste moduak	Folklorearen balioestea eta haiekiko interesa izatea.	2-11